

Haur elebidunak eta gramatika-sistemen bereizketa

ANDONI BARREÑA *

Nola garatzen dituzte haur elebidunek ikasten diharduten gramatika-sistema biak? Bereizi egiten dituzte gramatika-sistema biak hasiera-hasieratik, gramatika-hatsarreak erabiltzen hasten direnetik, ala, ordea, hizkuntza bietara zabaltzen duten gramatika-sistema bakarra baino ez dute ezagutzen garapenaren hasierako aldi batean?

Hizkuntzaren jabekuntzan zehar, gramatika-sistema biak garatzean, sistema bakoitzari dagokion ibilbidea bereizirik jarraitzen dute, ala, ostera, sistema bien arteko interferentziak inoiz, lantzean behin edo sarritan ikus daitezke haur elebidunen ekoizpenetan?

Galdera hauei erantzuteko asmoz hamaika ikerketa egin dira azkeneko urteotan. Badira, batetik, gramatikaren garapenaren hasieran bereizketarik gertatzen ez denari eusten diotenak. Eritzi honen aldekoen artean ospetsuak dira Volterra eta Taeschner (1978) eta Taeschner (1983) ikertzaileen lanak. Ikertzaile hauek, italiera eta alemanera –batera eta txiki-txikitatik– ikasten duten haur elebidunen hizkuntza-ekoizpena azterturik, hiru aroko garabidea proposatzen dute: hasiera baten haur elebidunek hizkuntza bietatik jasotako hitzez eraikitako sistema lexiko bakarra baino ez dute; bigarren aroan, sistema lexiko biak ezberdintzen dituzte baina hizkuntza bietara hedatzen dituzte arau sintaktiko beraiek; eta azkenik, hirugarren aroan, hizkuntza-sistema biak, lexikoan zein gramatikan, bereizirik garatzen dituzte.

Vila eta Cortés-ek (1991), gaztelania eta katalanera batera ikasten diharduten haurren ekoizpena arakaturik, zalantzan jartzen dute gramatika-sistema bakarreko aroa. Ikerlari hauek zera diote, aro hau baldin bada oso laburra izango dela, eta gainera, eurek ez dutela aurkitu azterturiko haurrengan.

Beste ikerlari askok eta askok, ostera, argi utzi dute haur elebidunek ha-

* Universidad de Salamanca

siera-hasieratik bereizten dituztela gramatika-sistema biak. Ildo honetan ikus ditzakegu, adibidez, Bowerman (1973), Padilla eta Lindholm (1984), Slobin (1985), De Houwer (1987, 1991), eta abar. Meisel-ek (1989), frantsesa eta alemanera ikasten diharduten haur elebidunak aztertzen dituela, sistema bien bereizketa argi dakusala esaten digu. Meisel-entzat, lexiko bakarreko aroa gertatzea baliteke, baina gramatika-sistemak, garatzen hasten diren une beretik, berezirik eraikitzen dituzte haurrek. De Houwer-ek (1987, 1991), arlo honetan datuetan oinarrituriko azterketak arakaturik, sistema bateratuaren aldeko frogarik ez dela bildu eta zaila dela biltzea idatzi du. Ikerlari honentzat, egitura oso ezberdinak eta bereziak dituzten hizkuntzak ikasten diharduten haurrak aztertu behar dira galdera edo arazo honi erantzun egokiren bat bilatzen hasteko.

Meisel eta Mahlau-k (1987), elebitasunaren jabekuntzaren arloan, lau kontzeptu ezberdintzea proposatzen dute. Eurentzat ezberdinak dira pragmatikari eta gramatikari dagozkion fenomenoak. Pragmatikaren arlokoak lirakeke, esate baterako, *kode-aldaketa* eta *kode-nahasketa*. *Kode-aldaketak* elkarrizketan zehar hizkuntzaz aldatzeko haur eta gizaki elebidunek duten gaitasuna adierazten du. Hau, noski, elkarrizketakide, gai, egoera zein asmoaren arabera gerta daiteke, eta soziolinguistikari lotzen zaio psikolinguistikari baino gehiago. *Nahasketa* fenomeno ere pragmatikari dagokio eta hizkuntza bat erabiltzen delarik bigarren hizkuntzari dagozkion hitzak eta esaldiak tartekatzean gertatzen da. *Nahasketa* deritzogun fenomenoan, hiztunak hizkuntza bien gramatika-sistemak ezagutzen eta bereizten ditu, alabaina, gurata nahasten ditu hizkuntza bien ekoizpenak elkarrizketan zehar.

Gramatikaren arlokoak lirakeke, ostera, *hizkuntza-bereizketa* eta *hizkuntza-bateraketa* fenomenoak. Hizkuntzaren jabekuntza, besteak beste, gramatikaren arau-sistemaren barneratzea edo baitaratzea da, eta ikuspegi honetatik *bereizketa* fenomeno, jabekuntza elebidunean, gramatika autonomo bi ikastea da, elebakarrek lortzen duten gramatika-gaitasun edo maila erdietsiz hizkuntza bakoitzean. Kontutan hartu, gramatikaz dihardugula eta ez lexikoaz.

Bateraketak, ostera, alderantzizko prozedura adierazten du. Fenomeno honen arabera haur elebidunek, gramatikaren jabekuntzaren garapenean zehar, aldi batean behintzat, hizkuntza bietan erabiliko luketen sistema bakarra eraikiko lukete. Sistema bakar hau haurrak berak eraikiko luke bateko zein besteko elementuak harturik. *Bateraketak*, noski, arazoak eta kalteak ekarri diezazkioke haur elebidunari, luzaroan irauten baldin badu behintzat.

Ikerlan hau gramatikaren garapenari lotuko zaio. Ez dut, beraz, pragmatikaren arloko fenomenorik ikertuko ez eztabaidatuko. Bestalde, lexikoaren jabekuntza ere ez dut arakatuko, eta beraz, maileguen erabileraz edo *kode-aldaketaz* zein *nahasketaz* ez dut ihardungo oraingo honetan.

1. HELBURUAK ETA HIPOTESIAK

Ikerlan honen helburu nagusia haur elebidunengan gertatzen den gramatika-sistemen garapena aztertzea da. Gramatika garatzen hasten diren une beretik sistema biak bereizten dituzten ala sistema bakarra eta bateratua garatzen duten arakatzea da asmoa.

Horretarako, haur euskaldun elebidunek, euskara eta gaztelania ikasten

diharduten elebidunek alegia, izen-sintagmaren egitura nola garatzen duten aztertzea erabaki dut.

Batetik, euskara eta gaztelania aukeratu ditut, egituraz zein senidetasunez hizkuntza arras bereziak direlako. Bestetik, izen-sintagmaren egitura, haurrek garatzen duten lehenetarikoa delako eta egitura honen bereizketa nabarmena delako hizkuntza hauetan.

Izen-sintagmaren egituran, gaztelaniaz, determinatzaileak izenaren ezkerrean jartzen dira. Euskaraz, ostera, determinatzaile gehienak izenaren edo izen-sintagmaren muinaren eskuman jartzen dira:

- (1) etxea / etxe bat / etxe hau
la casa / una casa / esta casa

Edozelan ere, euskarazko determinatzaileak ez doaz guztiak eskuman, eta batzuk ezkerrean ere ikus ditzakegu:

- (2) bi etxe (etxe bi) / hiru etxe / zein teilatu? / zenbait gizon

Genitiboaren egiturak ere aurkakotasun garbia erakusten digu euskaraz eta gaztelaniaz. Gaztelaniaz izenaren eskuman eta preposizio baten bidez agertzen zaigu. Euskaraz, aitzitik, posposizio baten bidez eta izenaren ezkerrean:

- (3) gizonaren etxea
la casa del hombre
la casa de (e)l hombre gizon-a-ren etxe-a
1 2 3 4 5 5 4 3 2 1

Gainera euskaraz genitibo bi ezagutzen ditugu. Bigarrenari leku-genitibo deritzogu:

- (4) mendiko gizona
el hombre del monte
el hombre de (e)l monte mendi-ø-ko gizon-a
1 2 3 4 5 5 4 3 2 1

Adjektiboan egongunea, aldiz, ez dago hain berezia hizkuntza bietan. Orohar, hizkuntza biek jartzen dituzte adjektiboak izenaren eskumatan:

- (5) etxe zuria
la casa blanca

Alabaina, gaztelaniaz ezkerrean ere joan daitezke adjektiboak, nahiz orduan esanahi pragmatikoa ezberdina izan. Euskaraz ere, zenbait adjektibo ezkerrean jar daitezke, baina gehienetan eskuman jartzen ditugu.

Gaztelaniaz izen-sintagmaren osagaiak numeroaren eta generoaren komunztadura izaten dute. Euskaraz, ordea, ez da halakorik gertatzen, izen-sintagma bera baita mugatzen dena eta ez beraren osagaiak. Euskaraz ez da genero morfologikorik, eta numero morfologikoa izen-sintagmaren eskumako muturrean adierazten da:

- (6) etxe zuriak
las casas blancas
las casas blancas etxe zuri-a-k
1 4 2 4 3 4 2 3 1 4

Lan-hipotesiak, beraz, honako hauek dira:

– Euskarak eta gaztelaniak ezagutzen duten izen-sintagmen egitura ezberdinak kontutan harturik, haurrak sistema bietako egiturak bereiziko ditu berauen erabileraren hasiera-hasieratik.

Euskarazko determinatzaile behinenak (-a, **bat**, **hau**,...) eskuman jarriko ditu hasiera-hasieratik, eta gaztelaniazkoak (**el**, **la**, **un**, **este**,...), ostera, ezkerrean. Genitiboek (euskarazko -en eta -ko posposizioak eta gaztelaniazko **de** preposizioa) ere egongune kontrajarriak izango dituzte hizkuntza bietan. Izen-sintagmaren barruan, numero-komunztadura gaztelaniaz baino ez du gauzatuko.

– Haur elebidunak garatzen dituen gramatika-sistema biak, elebakarren moduan garatuko ditu. Haur elebidunaren ahalmena haur elebakarren parekoa izango da. Garabideak, beraz, antzerakoak izango dira elebidun eta elebakarren ekoizpenetan.

– Hizkuntza bakar batek berezitasunen bat izatea –azterketa honetan generoa gaztelaniaz– ez da oztopo izango beraren jabekuntza erdiesteko. Haur elebidunak gaztelaniazko haur elebakarren antzera baitaratuko du generoaren kategoria.

– Gramatika-sistema biak bereizteaz gain, haur elebidunak ez du gramatika-interferentziarik erakutsiko. Gramatika-interferentziak, baleude, soziologikoak izango lirateke, baina inola ere ez haurren jabekuntzaren garapeneri dagozkionak, hots, elebidun izateari atxiki dakizkiokeenak.

Bestalde, izen-sintagmaren garapenean jabekuntzari buruzko estrategia ere ikusi ahal izango dugu azterketan zehar, eta arlo honetan, dagoeneko gaztelaniarentzat Aguirrek (1995) eta euskararentzat Barreñak (1993, 1995) erakutsi dutenaren arabera, gramatikaren jabekuntza mailakatuak ikusiko dugu la itxaroten dut. Ildo honetatik, beraz, ondoko lan-hipotesiak dauzkat:

– Hasiera baten, aldi aurremorfologikoa aurkituko dugu. Haurrak, gramatikaren garapena gauzatzen hasi baino lehen, gramatika-ezaugarriak eta sintaxi-araurik gabeko hizkuntza-ekoizpenak burutuko ditu aldi baten. Aldi aurremorfologikoa honetan ez du determinatzailearen jabekuntza erdietsia izango, ezta numeroarena, genitiboarena, generoarena edo beste ezein gramatika-kategoriarena.

– Izen-sintagmaren garapena ez da bat-batean gertatuko, era mailakatuan baino. Izen-sintagmaren garabidean gramatika-ezaugarriak ez dira denak bat-batean agertuko, apurka apurka baino, hots, era mailakatuan. Horrela, determinatzaile-ezaugarria, numeroarena baino goizago garatuko duela uste dut.

Zentzu berean, numeroaren barruan, singularreko formak izango dira erabiliko dituen lehenak. Pluraleko formak beluago aurkituko ditugu, eta hauek agertzean baino ezingo dugu numeroaren jabekuntzaz hitzegin, singularrarekiko aurkakotasuna gauzatzen dutelako. Mailaketa bermatzeko, euskarazko korpusean, forma mugagabeak pluralekoen ostean aurkitzea itxaroten dut.

– Aurrikusi dudana garapen mailakatuak ondorio bereziak ekarriko dizkio haurrari garapenean zehar. Gramatika-ezaugarriaren bat ikasi berri duenean, inguru guztietan, beti eta ehuneko ehun aldiz ezingo duela erabili uste dut. Nolabait, gramatika-ezaugarri berriren batez jabetzen hasten denean, aldi batean, aurreko aldiko egiturak, hots, gramatika-ezaugarri ikasi berri duen ho-

ri erabiltzen izan ez duen aldiko egiturak ere erabiltzen jarraituko duela uste dut. Esate baterako, genitiboaren egituraz jabetzen denean, hurrenkera berezia (euskaraz, genitiboa ezkerrean) eta marka (euskaraz, **-en** eta **-ko**) erabiltzen hasiko da, baina hasiera batean, genitiboaren jabekuntza egin barik izan duen aldiko egiturak (edozein hurrenkera eta markarik gabe) ere erabiltzen jarraituko du.

Jokaera honek, helduon ikuspuntutik neurtuta, akatsak gauzatzera bultzatuko du haurra. Alabaina, balizko akats hauek, nire ustez, jabekuntza-mailakatuaren eta garapen-mailakatuaren ondorio hutsa baino ez dira.

2. AZTERTURIKO KORPUSA ETA ERABILITAKO METODOLOGIA

1988. urtean Euskal Herriko Unibertsitateko H.E.G.E.H.J. (Haur Euskaldun Gaztelaniadun Elebidunen Hizkuntza Jabekuntza) ikertaldea, Hurburgetako Unibertsitateko B.U.S.D.E. (Baskisch und Spanisch: Doppelter Erstspracherwerb - Euskara eta Gaztelania: Bi Lehen-Hizkuntzen Jabekuntza) ikertaldearekin batera, hainbat haur euskaldun eta elebidunen datu-bilketa egiten hasi zen.

Horretarako, hainbat haur euskaldun elebakar eta elebidun aukeratu ziren eta hamabostero, ikasten zuten hizkuntza bakoitzean, 30-40 minutuko bidegrabaketa egin zitzaizen euren etxeko berezko giroan, 1;05 (urteak; hila-beteak) adina izan zutenetik 5;06 adina izan zuten arte. Saiotan mintzaide helduren batek, gehienetan guraso batek, haurragaz hitzegiten eta jolasten du eguneroko hizkuntza erabilirik. Bidegrabaketak transkribatu ere egin ziren ikertalde bien artean eginiko programa baten bidez.

Nik neuk, ikerketa honetarako, haur elebidun baten euskarazko eta gaztelaniazko ekoizpenak arakatuko ditut 1;06 adina izan zuenetik 3;06 adina izan zuen arte.

Haur elebidun honen garapena haur elebakarren garapenekin erkatzeko, haur euskaldun elebakarraren ekoizpena ere arakatuko dut 1;05 adina izan zuenetik 3;00 adina izan zuen arte. Gaztelaniazko elebakarraren datuak ikusteko Hernández Pinak (1984), López Ornatek (1994, 1995) eta Aguirrek (1995) eskainiriko ikerketetara joko dut.

Haurren ekoizpenetatik izen-sintagmaren egitura erakusten digutenak baino ez ditut aukeratuko, eta hauetatik, haurrek jabetasun osoaz gauzatzen dituztenak, nagusiek edo mintzaideek aurretiaz esan dutenen imitazio hutsak direnak bazterturik.

Laburbilduz, ondoko taulan, arakatu ditudan haur euskaldun bien grabaketa-zerrendak erakutsiko ditut. Adinarekin batera e.b.b.l. (esaldiaren batz besteko luzera) neurriak ere adieraziko ditut. Ebbl-neurrien bidez, zein erreferentzia-indizea baita, haurren hizkuntza-maila islatzen da, une horretan haurrak ekoizten dituen hitzak eta morfologia-elementuak kontutan izanik.

1. Taula
Korpus-zerrendak

Elebiduna		Elebiduna		Elebakarra	
Eusk.		Gazt.		Eusk.	
Adina	Ebbla	Adina	Ebbla	Adina	Ebbla
1;06;27	1,02	1;07;14	1,17	1;05;19	1,12
1;07;14	1,08	1;07;27	1,40	1;06;22	1,14
1;07;27	1,10	1;09;04	1,50	1;07;20	1,23
1;09;04	1,35	1;09;22	1,37	1;08;29	1,41
1;09;22	1,44	1;10;13	1,92	1;10;12	1,38
1;10;12	1,71	1;11;02	1,98	1;11;05	1,75
1;10;13		1;11;16		2;00;05	1,77
1;11;06	1,96	2;00;00	2,46	2;00;26	1,93
2;00;00	2,53	2;00;20	2,03	2;01;19	1,94
2;00;22	2,13	2;01;14	2,84	2;02;00	2,28
2;01;06	1,97	2;01;21		2;03;09	2,36
2;02;11	2,41	2;02;14	2,93	2;04;11	2,45
2;03;11	2,76	2;03;02	3,08	2;04;24	3,34
2;04;00	3,38	2;03;11	3,10	2;05;05	3,23
2;04;11	3,95	2;04;11	3,02	2;05;21	3,40
2;04;27		2;04;19	3,67	2;06;05	3,79
2;05;10	3,17	2;05;19	3,05	2;06;24	3,23
2;06;11	2,99	2;06;11	3,08	2;07;05	3,40
2;06;24		2;07;01	3,56	2;08;13	4,12
2;07;01	2,96	2;07;28		2;08;18	3,97
2;07;25		2;08;18	3,28	2;09;00	4,64
2;08;19	3,41	2;08;29	3,55	2;10;12	4,14
2;09;04	3,66	2;10;12	4,47	2;10;28	4,35
2;10;04	4,24	2;11;10	3,95	2;11;12	3,89
2;11;09	3,82	2;11;18		3;00;02	
2;11;16	3,41	3;00;13	2,12	3;00;10	4,21
3;00;18		3;00;20		3;01;12	5,36
3;00;20	4,40	3;01;04	5,13	3;01;28	4,45
3;01;04	4,45	3;01;18		3;02;04	5,21
3;01;16		3;02;08	5,58	3;02;10	5,03
3;02;06		3;02;14		3;03;00	4,70
3;02;15	4,53	3;03;01	4,63	3;03;25	5,17
3;03;01	5,37	3;03;07			
3;04;12	4,60	3;03;15			
3;05;10	4,56	3;04;12	4,66		
3;05;23		3;04;25			
3;06;14	5,09	3;05;10	4,51		
		3;05;23			
		3;06;14	5,28		

Bestalde, Mikel (M) haur elebiduna hizkuntza biekin dago harremanetan jaio denetik, aitzak gaztelaniaz eta amak euskaraz egiten baitiote etxean. Zentzu honetan, elebidun orekatutzat har daiteke. Oitz (O) haur elebakarrak euskara baino ez du garatu lau urte izan duen artean.

Haur biak bizkaitarrak dira eta etxean entzuten duten euskara nagusiki bizkaiera da, batuaren eragina handi samarra den arren.

Bestalde, hurrek ekoitziriko adibideetan bokale-harmonia fenomenoaren ondorioak ez ditut transkribatu. Aldaketa honek ez dio eraginik ekartzen morfologiari edo sintaxiari. Ekartzekotan, fonetikari baino ez dakarkio.

3. JABEKUNTZA-GARAPENA

Jarraian, hurrek ekoitziriko datuen azterketa aurkezuko dut, baina euskarazko eta gaztelaniazko korpusak bereizirik. Lehenengo euskarazko araketari lotuko natzaio eta, ondoren, gaztelaniazkoari.

3.1. Euskal izen-sintagmaren garapena.

Euskarazko korpusaren aurkezpena eta araketa, hurrek horrela egiten dutelako, urrats ezberdinen arabera erakutsiko dut. Hasieran aldi aurremorfolo-
gikoa ikusiko dugu eta ondoren determinatzaileen agerrera, genitiboen erabilera, pluralaren erabilera, adjektiboen agerrera eta bi izenek osaturiko sintagmen agerrera. Amaitzeko, ondorioen laburbilketa egingo dut.

3.1.1. Aldi aurremorfolo- gikoa.

Haur bien garapenetan, elebidunarean zein elebakarrarenean, nabarmena da hasierako aldi aurremorfolo-
gikoa.

Aldi aurremorfolo-
gikoan hurrek ez dute inolako elementu morfolo-
gorik ez sintaktikorik erabiltzen, helduok erabiltzen dugun bezala behintzat.

Haur biek, elebidunak zein elebakarrak, aldi aurremorfolo-
giko honetan, izentzat eta adjektibotzat jo ditzakegun unitate linguistikoak, orohar, -a mar-
kaz gauzatzen dituzte:

(7) *e(s)nea* (M, 1;07)

(8) *a(rg)ia* (O, 1;05)

Halere, beste hainbat ekoizpen -a marka barik gauzatzen dituzte. Hauen artean honako hauek aurkitzen ditugu:

Batetik, izen bereziak eta izenordainak. Bestetik, nini-hizkuntzako hitz bereziak (*txotxo*, *pete*, *nanan*, etabar). Azkenik, zenbait hitz mailegatu:

(9) *autobu* (M, 1;07)

Izenordainak, izen bereziak eta nini-hitz bereziak -a marka barik gauza-
tzea itxarongarria da, horrelaxe egiten baitugu hiztun helduok ere. Baina hitz mailegatuak, ostera, ez.

Hitz mailegatuak ekoiztean, haur hauek, batez ere elebidunak, bere in-
guruko mintzaideek bezalaxe jokutzen du. Halako zenbait hitz bere inguru-
koek inolako marka barik gauzatzen dituztenez, haur honek ere gauza bera
egiten du. Hona hemen haur elebidunaren eta amaren artean izandako elka-
rrizketatxo ipuin bat begiratzen dihardutelarik:

(10) *Ama:* *Be(g)itu, Mikel! Karakol! Mikel! Bai!*

Mikel: *(kar)ako(l)?*

Ama: *Bai.*

Adibideon ikus daitekeen moduan, haurrak, amak bezala, *karakol* hitza
-a marka barik ekoizten du.

Badirudi, beraz, haur euskaldunek, izentzat eta adjektibotzat har daitez-
keen unitate lexikoak -a markaz gauzatzeko joera dutela. Baina jokaera ho-
nek ez du zerikusirik gramatikarekin. Hurrek hiztun helduen jokabidea
errepikatu baino ez dute egiten. Gehienetan -a marka eta guzti ekoizten di-

tuzte izenak eta adjektiboak, baina lantzean behin, nagusiek marka barik erabiltzen dituztenean, eurek ere gauza bera egiten dute. Jabekuntza, une hone-tan, bada, lexiko hutsa da. Fenomeno hau, dagoeneko, deskribaturik dago Idiazabal (1991) eta Barreñaren (1993, 1995) ikerlanetan.

Haurrek izenei eta adjektiboari -a marka erantztean, beste markaren bat ekoizteko edo osagai biko sintagmak eraikitzeke, gramatika-ezaugarriak erabiltzen hasiko dira (ikus goian aipaturiko Idiazabalen eta Barreñaren lanak).

Estrategia honen ildotik, haurrek osagai biko izen-sintagmak eraikitzen dituztenean, aldi aurremorfolo-gikoan, unitate bakoitzean -a marka erantsirik ikusiko dugu:

(11) *gaztaia pottokia (M, 1;09)*

Aldi aurremorfolo-gikoan, aurreko adibideak erakusten digunez, haurrek ez darabilte -a markaz gaineko beste elementu morfolo-gikorik edo sintakti-korik. Ez darabilte genitiboaren markarik, ez genitiboaren egiturak eskatzen duen hurrenkera sintaktikorik. Izan ere, (11) adibideak, ekoizpenaren inguru-a ikusita, horrelakoa izatea eskatuko luke helduok gauzatzen dugunaren arabera:

(11b) pottokia-ren gaztaia

Haur elebidunak, ostera, ez du ez hurrenkera egokirik ez genitiboari da-gokion markarik erabili.

Adibide honetako -a marka, noski, ez da gramatika-ezaugarria. Jabekun-tza lexikoari dagokiona baino: euskaldunek -a marka eta guzti ikasten ditu-gu izenak eta adjektiboak. Nabaria da horrela egiten dugula hiztun helduok ere gure hizkuntzari buruzko informazio lexikoa beste hizkuntzaren batean eskatu ezkeru.

Haur elebakarraren korpusean ere ikus daitezke antzeko adibideak, hots, -a markaren gehiegizko erabilera erakusten dutenak:

(12) *zein zuloa? (O, 2;02)*

(13) *zatarra zatarra (O, 2;04)*

Adierazgarria da, halaber, ondoko adibidea:

(14) *Amane Ped(r)o (O, 1;08)*

Bertan haur elebakarrak bi izen propio erabiltzen ditu. Ohikoa denez, ez du -a markarik ekoitzi. Baina, era berean, ez du genitibo-markarik ekoitzi, ez itxaron zitekeen hurrenkera erabili ere:

(14b) Pedro-ren Amane

Haur hau ipuin bat begiratzeko ari da, eta inguruaren arabera *umea/Ama-ne* seinalatzen du. *Aitaren/Pedroren umea* esan beharrean, izen propio biak edozein hurrenkeratan metatu ditu.

Badirudi, beraz, aldi aurremorfolo-gikoan haurrek izentzat eta adjektibo-tzat -nagusien ekoizpenentzat darabilgun terminologia bera erabilirik- jo di-tzakegun unitateak -a marka eta guzti ekoizten dituztela. Honez gain, ez du-te bestelako marka morfolo-gikorik gauzatzen, genitiboarena esate baterako, edo sintaxi-araurik gordetzen, genitiboak eskatzen duen hurrenkera hain zu-

zen. Elementu hauek erabiltzean, gramatikaren garapena, izen-sintagmaren garapena erakutsiko digute haurrek.

3.1.2. Determinatzaileen agerrera.

Agertzen diren lehenetarikoko elementu morfologikoak determinatzaileak dira. Ondoko tauletan, 2.ean -haur elebidunarena- eta 3.ean -haur elebakarrena- alegia, ikus daiteke agerrera-unea. Taula hauetan sei multzotan bereizi dut determinatzaileen ekoizpena: inolako markarik gabeko adibideak, -a markaz osaturikoak, **bat** determinatzaileaz gauzaturikoak, **beste** aurre-determinatzailearen erabilerak -beti izenen batekin batera-, erakusleez buruturikoak, edutezko genitiboez -gaztelaniarekin izan dezakeen harremana erkatzeko asmoz- eraikiak eta, azkenik, beste zenbaitekin egindakoak -galdetzaileak, harridurazkoak, zenbatzaileak,...-.

2. TAULA
DETERMINATZAILEEN AGERRERA HAUR ELEBIDUNARENGAN

-	ø	-a	bat	beste + izena	erakusl.	edutezk. (gen.)	besteak
1;07;14	1	5					
1;07;27		4					
1;09;04	3	6					
1;09;22	1	23	1				
1;10;12	2	15					
1;10;13	1	7					
1;11;06	1	17	1				
2;00;00	2	8	1	1		1	
2;00;22	1	4	1		1		1
2;01;06		5					
2;02;11	1	5			1	1	1
2;03;11	1	13	2		2		
2;04;00		12	3	1		1	
2;04;11	1	11	1		4	1	1
2;04;27		7	2				
2;05;10	1	11	4			2	1
2;06;00		10	3	3	2	1	1
2;06;11		11	5			1	1
2;07;01		7	2	6	1		
2;07;24		19	1	2	1		
2;08;19		17	6	4			1
2;09;04		14	14		4		2
2;10;04		13	9		1		
2;11;09		21	10			3	
2;11;16	1	24	19	1		2	1
3;00;16	1	23	4		4	1	1
3;00;20	1	25	5	6	7	7	
3;01;04		28	3	6	3	4	1
3;01;16		38	7	1	2	4	1
3;02;06		54	5	3	3	6	3
3;02;15		38	6	2	1	1	2
3;03;01		8	2			1	
3;04;12		19	1		1	1	1
3;05;10		24	6	3	1		
3;06;14		30	8		2	1	

3. TAULA
DETERMINATZAILEEN AGERRERA HAUR ELEBAKARRARENGAN

-	ø	-a	bat	beste + izena	erakusl.	edutezk. (gen.)	besteak
1;05;19		1					
1;06;22							
1;07;20	1	3					
1;08;29		4					
1;10;12		6					
1;11;05		8					
2;00;05	1	21	1	1		4	
2;00;26		33		3		3	
2;01;19	1	17		2		2	1
2;02;00		29				1	1
2;03;09		35	2	2		2	1
2;04;11		24			1		6
2;04;24		41	11	2	3		1
2;05;05		55	8	9	4	5	1
2;05;21		33	9	3	2	5	1
2;06;05		59	7	5	8	18	3
2;06;24		46	1	1	1	3	1
2;07;05		44	8	3		3	2
2;08;13		38	8	5	11	6	1
2;08;18	4	28	4			4	2
2;09;00		70	15	4		3	6
2;10;12		55	15	6	6	3	5
2;10;28		34	11	1	2	3	
2;11;12		68	11	2	6	3	4
3;00;02		12	1		2	3	
3;00;10	3	52	4	2	6	4	3

Taula hauei begiraturik, nabarmen geratzen da haur elebakarra 2;00;05eko adineko bidegrabaketan hasten dela determinatzaile ezberdinak erabiltzen. Lehenago, 1;05eko adinetik 1;11ko adinera arte, -a marka baino ez du erabili. Haur elebidunaren ekoizpenari begiraturik, ordea, zalantzagarriagoa iruditzen zait hasiera-unea bereiztea, edozelan ere ez da 1;09;22 baino lehenago ikusten, eta une honetan adibide bakarra baino ez dut bildu, eta baliteke, beraz, beranduago hastea, 1;11;06ko adinean hain zuzen.

Behinena, nire ustez bederen, aldi aurremorphologikoaren baieztatzea da eta, noski, aldi honetan erabiltzen dituzten egiturak zehaztea.

Edozelan ere, behin garapen morfologikoaren bidetik abiatzen direlarik, sarritan aldi aurremorphologikoan bildu ditudan egitura bereziak ere aurkituko ditugula azpimarratu behar dut, hots, -a marka erantzte-eza -ikus elebakarraren (12) eta (13) adibideak-, genitibo-markaren erabilera-eza zein genitibo-hurrenkeraren erabilera-eza. Pentsatzekoa da aldi luze batean erabili dituzten egitura aurremorphologikoak ez dituztela bat-batean alboratuko morfologia garatzen hasten direnean, eta sarritan, baina gero eta gutxiagotan, ikusi ahal izango ditugula halako adibideak.

Ezin dugu pentsatu, haur elebidunak ekoitzi dituen (11) bezalako egiturak gaztelaniaren hurrenkerari dagozkiola, edo *bateraketa* deritzon fenomenoari. Kontua da, haur elebakarrak ere antzekoak egiten dituela. Badirudi,

beraz, euskararen jabekuntzaren garapenari lotuak ikus ditzakegula, hots, garapen mailakatuari.

Determinatzaileen agerrera-hurrenkerei begiraturik, honako taxukera ikus dezakegu haur bien korpusetan:

4. TAULA
DETERMINATZAILIEN HURRENKERA-AGERRERA HAUR BIENGAN

	elebiduna	elebakarra
-a	1;07	1;05
bat	1;09/1;11	2;00
beste	2;00	2;00
edutezkoak	2;00	2;00
erakusleak	2;00	2;04
zenb. zehaztuak	2;00	2;04
zenb. zehaztugabeak	2;06	2;06
harridurazkoak	2;02	2;06
galdetzaileak	2;06	2;02

Badirudi **bat** eta **beste** direla erabiltzen dituzten lehenetariko determinatzaileak, -a markarekin batera, noski. Edutezko genitiboak ere, agian euskaraz genitiboaren erabileran baino ezin ditugunak sartu, oso goiz agertzen dira haur biengan. Erakusleak ere oso goiz agertzen dira haur elebidunarengan, eta apurtxo bat gerotxoago elebakarrarengan. Nolanahi ere, banan-banan aztertuko ditut determinatzaile-mota guztiak.

3.1.2.1. Bat determinatzailea.

Bat determinatzailea beti agertzen da eskuman haur bien ekoizpenean. Horrelaxe eskatzen du euskararen arauak. Hona hemen lehenetariko adibi-deak:

(15) *beste bat (M, 1;09)*

(16) *azal bat (O, 2;00)*

Ez dut inolako egoera berezirik aurkitu determinatzaile honen ekoizpenean korpus osoan, erregularitasuna izan ezik.

3.1.2.2. Beste aurre-determinatzailea.

Atal honetan *beste* aurre-determinatzailearen ekoizpena izen batekin doanean aztertuko dut. Nik uste dut, elementu hau determinatzailearen egituraren jabekuntzaren eragingarrietakoa dela, hots, haurrei konturazi egiten dietetako bat.

Elementu hau, euskaraz itxarongarri den bezala, beti izenaren ezkerrean agertzen da, eta beste determinatzailearen baten erabilera eskatzen du.

Aurkitu ditudan ekoizpen guztiak arauarekin bat datoz. Jarraian, adibide batzuk:

(17) *beste guaugaua (M, 2;00)*

(18) *beste artazia (O, 2;00)*

3.1.2.3. Edutezko genitiboak.

Euskal gramatikaren deskribapenetan egitura hauek genitibo hutsak dira, halere, gaztelaniazko euren parekoekin konparatzearen, zeinetan determinatzaileak baitira, determinatzaileen artean arakatuko ditut.

Hauek ere oso goiz ikus ditzakegu haur bien ekoizpenetan. Edozelan ere, nabaria da haurrek genitibo bezala eta genitibo mugatu bezala oso goiz erabiltzen dituztela. Erabilera biak erkatzeko 5. eta 6. tauletara jo dezakegu.

5. TAULA
EDUTEZKOEN ERABILERA-KOPURUAK HAUR BIENGAN

	Haur elebiduna			Haur elebakarra	
	edutezk.	edutezk. mugat.		edutezk.	edutezk. mugat.
2;00;00	1	1	2;00;05	3	1
2;00;22			2;00;26	3	2
2;01;06		1	2;01;19	2	
2;02;11	1	1	2;02;00	1	2
2;03;11		2	2;03;09	2	
2;04;00	1	3	2;04;11		
2;04;11	1	1	2;04;24		8
2;04;27		2	2;05;05	5	9
2;05;10	2	4	2;05;21	5	1
2;06;00	1		2;06;05	18	10
2;06;11	1		2;06;24	3	
2;07;01		2	2;07;05	3	1
2;07;24		1	2;08;13	5	
2;08;19	2		2;08;18	4	3
2;09;04	1	1	2;09;00	3	
2;10;04	2	3	2;10;12	3	1
2;11;09	3	4	2;10;28	3	3
2;11;16	2	2	2;11;12	3	
3;00;16	1	1	3;00;02	3	1
3;00;20	7	5	3;00;10	4	3

6. TAULA
EDUTEZKO PERTSONEN AGERRERA-HURRENKERA HAUR BIENGAN

Haur elebiduna					
1. sing.	ni-re	2;00;00	1. pl.	gu-re	2;11;09
2. sing.	zu-re	2;06;11	2. pl.	zuen	-
3. sing.	bere (haren)	2;02;11	3. pl.	bereren (euren)	2;08;19
Haur elebakarra					
1. sing.	ni-re	2;00;26	1. pl.	gu-re	2;07;05
2. sing.	zu-re	2;00;05	2. pl.	zuen	2;10;28
3. sing.	bere (haren)	2;00;26	3. pl.	bereren (euren)	-

Edutezko genitiboak, arauak eskatzen duen legez, beti agertzen dira izenaren ezkerrean. Horretan ez dut salbuespenik aurkitu:

(19) *nire trena* (M, 2;00) *bere etxera* (M, 2;02)

(20) *o(ra)in zure ulea* (O, 2;00) *bere aita* (O, 2;00)

Edutezko mugatuak ere **-nirea, zurea, berea,...-** oso goiz ikus ditzakegu, edutezkoekin batera edo goizago. Halere, goizen agertzen den forma **nirea**

da, baina forma bakarra izanik eta aurkakotasunik ez gauzatzean ez dut emankortzat jo.

3.1.2.4. Erakusleak.

Erakusleak determinatzaile legez erabiltzen hasi aurretik, haur biak darabiltzate forma hauek deiktiko edo seinalatzaile bezala:

(21) *hau ez* (M, 1;09) *hau t(r)ena* (M, 1;09)

(22) *hori txotxo* (O, 1;07) *hori t(r)ena* (O, 1;08)

Seinalatzaile edo deiktiko bezala gauzatzen duten erabilera hau oso goiztiarra da, ezaugarri morfologikoak erabili aurrekoa alegia. Seinalatzaileen erabilera hau, gainera, gehienetan behintzat, esaldiaren hasieran gertatzen da, seinalatzen duten objektuaren izena ekoitzi baino lehen. Haurren ekoizpenean morfologia garatzean, helduongan gertatzen den legez, erakusleen izaera seinalatzailea ikus dezakegu:

(23) *hau kotxea da* (M, 2;03)

Seinalatzaile bezala gauzatzen duten erabileraren ondoren, erakusleak determinatzaile legez erabiltzen hasten dira. Baina, harrigarria bada ere, oso erabilera berezia egiten dute. Haur biek, korpusetan zehar, erakusle determinatzaileen hiru erabilera-mota gauzatzen dituzte: erakuslea izenaren aurrean, erakuslea izenaren ostean eta, azkenik, erakuslea aurrean eta atzean errepikatuturik (ikus 7. eta 8. taulak).

7. TAULA ERAKUSLEEN ERABILERA HAUR ELEBIDUNARENGAN

	deiktikoak	erakuslea ezk.	erakuslea esk.	erakuslea ezk. eta eskuman
1;07;14	1			
1;07;27	1			
1;09;04	2			
1;09;22	2			
1;10;12	1			
1;10;13	1			
1;11;06	4			
2;00;00	2			
2;00;22		1		
2;02;11			1	
2;03;11	1	2		
2;04;00	1	1		
2;04;11	4	4		
2;04;27	2			
2;05;10	3			
2;06;00		2		
2;06;11	1			
2;07;01		1		
2;07;24	4	1		
2;08;19	3			
2;09;04	3	1		
2;10;04	1			1
2;11;09	4			
3;00;16	6	4		
3;00;20	4	5		2

3;01;04	2	2		1
3;01;16		1		1
3;02;06	3	1	1	1
3;02;15	2			1
3;03;01	1			
3;04;12				1
3;05;10	1	1		
3;06;14	2	1		1

8. TAULA
ERAKUSLEEN ERABILERA HAUR ELEBAKARRARENGAN

	deiktikoak	erakuslea ezk.	erakuslea esk.	erakuslea ezk. eta eskuman
1;10;12	1			
1;11;05	3			
2;00;05				
2;00;26	5			
2;01;19	3			
2;02;00	9			
2;03;09	3			
2;04;11	6		1	
2;04;24	6			
2;05;05	2	4		
2;05;21	1	2		
2;06;05	6	6	2	
2;06;24	3		1	
2;07;05				
2;08;13	2	1		10
2;08;18	2			
2;09;00	4			
2;10;12	1	6		
2;10;28	2	1	1	
2;11;12	3	6		
3;00;02	3	2		
3;00;10	1	6		

Determinatzaile moduan egiten duten lehen erabilera, haur biengan, ize-naren ezkerrean jartzearena da. Egitura hauxe da, gainera, haur biengan nagusitzen dena 3 urte egin arte. Ez da erabilera bakarra, baina bai maizen ikus daitekeena:

- (24) *hauek kotxeak (M, 2;01)*
- (25) *honekin kotxeagaz (M, 3;04)*
- (26) *hauekin zapatilekin (M, 3;05)*
- (27) *hori trenna (O, 2;05)*
- (28) *hori mina osatu bi(behar) da (O, 2;06)*
- (29) *hauek kojina horkoak dira (O, 2;10)*

Adibideetan ikus daitekeenez, erakuslea ezkerrean agertzeaz gain, sintagma osatzen duten osagai biak mugaturik zein deklinaturik ager daitezke.

Jokabide hau, noski, euskararen arauaren kontrakoa dela esan behar dut, behintzat euskara estandarraren arauaren aurkakoa.

Edozelan ere, erabilera hau ez da haurrek gauzatzen duten bakarra. Lan-

tzean behin estandarraren arauak eskatzen duen eskumako gauzapena ere egiten dute (ikus 7. eta 8. taulak). Alabaina, azpimarragarriagoak iruditzen zaizkit erakuslea izenaren aurrean zein atzean errepikaturik gauzatzen dituzten adibideak. Halakoak haur elebakarraren korpusean 2;08ko adineko grabaketan baino ez ditut ikusi -10 adibide-, baina elebidunaren korpusean ia grabaketa guztietan agertzen da baten bat 2;09ko adinekotik aurrera:

(30) *hau tonto hau ez jate (zait) gustetan (gustatzen) (O, 2;08)*

(31) *hau sorgin motz hau (O, 2;08)*

(32) *hori kotxe hori (M, 2;10)*

(33) *hauxe txikitxo hau (M, 3;00)*

Jakina da bizkaieraz halako egiturak gauzatzen direla, eta haur hauek, lehenago esan dudan legez, bizkaitarrak dira biak.

Zergatik jartzen dituzte erakusleak izenaren ezkerrean? Erakusleak ezkerrean jartzean, zergatik bikoizten dituzte mugatzaileak edo deklinabide-markak?

Erantzunak bilatzen hasi aurretik, haur biek, elebidunak zein elebakarrak, antzeko jokabidea erakusten digutela azpimarratu nahi dut. Erakuslea ezkerrean jartzea gehienetan erabiltzen duten aukera da. Gai dira erakuslea eskuman jartzeko, baina ezkerreko egonguneak lehentasuna duela esan daiteke. Geroago, 2;10eko adinetik aurrera haur elebidunaren ekoizpenean eta 2;08ko adinean haur elebakarraren korpusean, bizkaierak eskaintzen dien aukera hasten dira erabiltzen eta bikoiztu egiten dute erakuslearen eta mugatzailearen gauzapena.

Haur biek antzeko garapena egiten dute. Zaila egiten zait, beraz, haurrek gaztelaniaren eragin zuzena dutela esatea. Haur elebidunaren garabidea elebakarraren garabidearen antzekoa izanik, hizkuntza-interferentziaren aukera edo hizkuntza-bateraketarena baztertu egin behar ditugula iruditzen zait.

Erakusleen egongune bereziaz ihardutekoan, haurrek entzuten duten hizkuntzakia zein izan den izan behar dugu kontutan. Bizkaierak, beraz, zeresan handia du kontu honetan. Baina bizkaierak bakarrik ez, haur hauek erakusleak eskuman ere entzuten dituztelako, euren etxeetan euskara estandarraren errealizazioak duen eragina dela eta.

Bestalde, bada beste fenomeno bat, nire ustez behinik behin, erakusleak ezkerrean jartzera bultzatzen dituena: erakusleekin egiten den erabilera deiktikoa edo seinalatzailea. Deiktikoen erabilera oso oinarritzkoa da haurren hasierako hizkeran (ikus (21), (22) eta (23) adibideak), eta erabilera honetan, gehienetan behintzat, erakusleak, izenaren ezkerrean doaz (ikus 7. eta 8. taulak).

Haur bizkaitarrek, beraz, garabide berezia eskaintzen digute erakusleen egongunearen jabekuntzan. Idiazabalek (1995) bizkaieraz ikasten ez duen haur euskaldun baten determinatzaileen deskribapena egitean ez du halako adibiderik aurkitu, haur honek erakusleak beti izenaren eskuman ekoizten baititu.

Erakusleen jabekuntzaren deskribapena amaitzeko, 9. taulan erakusle bakoitzaren erabilerearen lehen dataketa ikus daiteke haur biengan.

9. TAULA
ERAKUSLEEN ERABILERAREN DATAKETA HAUR BIENGAN

	elebiduna deiktikoak	elebiduna determinatz.	elebakarra deiktikoak	elebakarra determinatz.
hau	1;07;14	2;00;22	1;11;05	2;04;11
hori	1;09;22	2;03;11	1;10;12	2;05;05
hura	1;07;27	3;00;20	2;01;19	3;00;02
hauek		2;07;01		2;10;12
horiek		3;02;15		2;05;21
haiek		3;00;16		2;10;12

Taula honetan, eta 7. eta 8. tauletan ere bai, deiktiko legez egiten duten erabilera goizetikoa dela ikus daiteke.

3.1.2.5. Zenbatzaileak.

Nik aztertu ahal izan dudan korpusetan zenbatzaile gutxi aurkitu dudanez, zenbatzaile zehaztuak eta zehaztugabeak batera aurkeztuko ditut (ikus 10. eta 11. taulak).

Haur elebidunaren korpusean hiru zenbatzaile baino ez ditut aurkitu: **bi**, **batzuk** eta **denak**. Haur elebakarraren korpusean, ostera, **bi**, **hiru**, **lau**, **batzuk**, **gehiago**, **asko**, **dena** eta **guztia**.

10. TAULA
ZENBATZAILIEN ERABILERA HAUR ELEBIDUNARENGAN

	bi	batzuk	denak
2;00;22	1		
2;04;11	1		
2;05;10	1		
2;06;00	1	1	
2;09;04	1		
2;11;16	1		
3;01;04			1
3;02;06	3		

11. TAULA
ZENBATZAILIEN ERABILERA HAUR ELEBAKARRARENGAN

	bi	hiru	lau	batzuk	gehiago	asko	dena/ guztia
2;01;19							1
2;04;11		2					
2;06;05				1			
2;08;13		1					
2;08;18					1		
2;09;00		3	1		1		
2;10;12	1					1	1
2;11;12	1			2			
3;00;10	3						

Zenbatzaile zehaztuen artean, seguruen pluraltasuna adierazteko eta ez zenbaki-kopuru zehatza, haur elebidunak **bi** forma aukeratu du hasiera batean. Haur elebakarrak, ostera, **hiru**:

(34) *amatxo bi (M, 2;00) ekarri dozuz (dituzu) bi kotxeak? (M, 2;04)*

(35) *eta hor hiru kotxe (O, 2;04)*

Bi zenbatzaile zehaztua lehen ekoizpenean baino ez zaigu agertzen eskuman haur elebidunaren korpusean. Gainerantzeko adibideetan ezkerrean jartzen du. Haur elebakarrak, beranduago egiten duen arren **bi** zenbatzailearen erabilera, antzera jokatzen du, ezkerrean zein eskuman jarriz:

(36) *igual hor egongo diez (dira) zapatila biak (O, 2;10)*

Bestalde, haur biek ikasi dute zenbatzaile zehatzekin mugatzaile plurala ere erabil daitekeela:

(37) *bi eskuak (M, 3;02)*

(38) *hegazkin biak (O, 2;11)*

Zenbatzaile guztiak, zehaztuak zein zehaztugabeak, haur elebakarraren korpusean zein elebidunarenean, euskararen arauak eskatzen duen egongunean ikus ditzakegu. Halere, batzuetan, morfologiaren jabekuntzaren hasieran batez ere, kostatu egiten zaie haurrei **-a** marka izenei erantztea, lehenago esan dudan legez:

(39) *beste ipuina dena (M, 2;01)*

3.1.2.6. Galdera eta harridura-determinatzaileak.

Galdera eta harridura-determinatzaileak beti ekoizten dituzte izenaren ezkerrean, itxarongarria denez.

Nolanahi ere, arlo honetan nabarmena da **-a** marka izenetik erantztea kostatzen zaiela, dagoeneko behin baino gehiagotan aipatu dudan legez. Fenomeno hau errazago ikus dadin, haurrek ekoitziriko galdera eta harridura-determinatzaile guztiak transkribatuko ditut jarraian:

(40) *zenbat kotxe! (M, 2;02)*

zer asto? (M, 2;08)

ze zuri? (M, 3;00)

ze kamioi? (M, (3;04)

ze kamioia? (M, 2;06)

ze sagua? (M, 2;09)

zein gorila? (M, 3;01)

(41) *zein zulua? (O, 2;02)*

zenbat ladrilo! (O, 2;06)

zein pelota? (O, 2;07)

zein kotxe? (O, 2;08)

zein amets? (O, 2;11)

zein mihiri? (O, 2;03)

zein aita? (O, 2;06)

zein horma? (O, 2;07)

zenbat liburu! (O, 2;10)

Haur biek darabilte gehiegizko **-a** marka, elebidunak 2;06ko eta 2;09ko grabaketetan eta elebakarrak 2;02ko eta 2;03koetan. Bestalde, **a** bokala erroarena denean, bizkaieraz artikulua eranstean **-ea** segmento bihurtzen delako, badakigu haur hauek noiz eransten dioten artikulua unitate lexikoari.

3.1.3. Genitiboaren erabilera.

Haur biek gauzatzen duten genitiboaren erabilera 12. eta 13. tauletan ikus daiteke. Bertan zazpi erabilera-mota bereizi ditut: edutezkoak (**nire**), edutezko mugatuak (**nirea**) -biak lehenago ere erakutsi ditudan determinatzaileak aztertzean-, **-en** genitiboa (**gizonaren**), **-en** genitibo mugatua (**gi-**

zonarena), leku-genitiboa (**barruko**), leku-genitibo mugatua (**barrukoa**) eta, azkenik, beste zenbait egitura genitibo (**kartoizkoa**, **medikuarenera**,...).

12. TAULA
GENITIBOAREN ERABILERA HAUR ELEBIDUNARENGAN

	edutezk.	edutezk. mugat.	genit.	genit. mugat.	leku	leku gen. genit.	besteak mugat.
2;00;00	1	1		z1			
2;00;22				1			
2;01;06		1	1				
2;02;11	1	1		2			
2;03;11		2				1	
2;04;00	1	3	1				
2;04;11	1	1				2	
2;04;27		2					
2;05;10	2	4			1		
2;06;00	1					1	
2;06;11	1			2			
2;07;01		2		5		1	1
2;07;24		1		1		1	
2;08;19	2		1	1		3	
2;09;04	1	1	1	1		2	
2;10;04	2	3	1	5		1	
2;11;09	3	4	1	1		1	1
2;11;16	2	2				1	
3;00;16	1	1	4	1	2	5	
3;00;20	7	5	3	2		2	1
3;01;04	4	2	8	6	1	4	1
3;01;16	4	3	1	1		4	
3;02;06	9	3	1	2	1	4	
3;02;15	1	2	1	5	1	6	1
3;03;01	1	3				3	
3;04;12	1		2	1	1	3	
3;05;10		1	2		5		
3;06;14	1	1	1		3	2	

13. TAULA
GENITIBOAREN ERABILERA HAUR ELEBAKARRARENGAN

	edutezk.	edutezk. mugat.	genit.	genit. mugat.	leku	leku gen. genit.	besteak mugat.
2;00;05	3	1		3			
2;00;26	3	2	2	9			
2;01;19	2		3	3			
2;02;00	1	2		2		2	
2;03;09	2		2		3	3	
2;04;11					1		
2;04;24		8	1		1	1	
2;05;05	5	9	1	2	4	1	1
2;05;21	5	1	2	3	2		
2;06;05	18	10	2	3	1	1	2
2;06;24	3		2	2			
2;07;05	3	1	1	1	1		
2;08;13	5		1	2		3	1
2;08;18	4	3	1		2	2	
2;09;00	3		10	7	3	5	
2;10;12	3	1	3	5	7	11	2
2;10;28	3	3	2	6	2	6	1
2;11;12	3		2	3	6	6	3
3;00;02	3	1	2	3			
3;00;10	4	3	3	1	1	4	

Haur biengan ikus daitezkeen erabilerarik goizetikoena edutezkoei dagozkienak dira. Genitibo orokorra, leku-genitiboa baino lehenago erabiltzen dute haur biek. Forma mugatuak ere korpus bietan agertzen dira goizago.

Genitiboaren jabekuntza, nire ustez, izen arrunten bati **-en** eta **-ko** markak eranstea datatu behar dugu. Edutezko formak bereziak dira, eta izenekin eraikitako formak beharrezkoak ditugu genitiboaren jabekuntza datatzeko, edutezkoak, seguruen, arlo honetako eragingarriak edo bultzagarriak diren arren. Horrela, beraz, haur elebiduna 2;04ko adinaz hasten da egitura hau erabiltzen. Elebakarra, oster, 2;00ko adina duenean. Hona hemen adibiderik goizetikoena motaz mota eta hurrez haur:

- (42) *Itsasorena* (M, 2;01) *amatxorena* (M, 2;02)
 (43) *medikuarena* (O, 2;00) *Teorena* (O, 2;00)
 (44) *teilatuaren gainean* (M, 2;04) *hau da bolantearen zatia* (M, 2;08)
 (45) *Teoren laguna* (O, 2;00) *amamaren erregalua* (O, 2;01)
 (46) *horkoa* (M, 2;00) *barrukoa* (M, 2;04)
 (47) *holakoa non?* (O, 2;02) *hau barrukoa* (O, 2;03)
 (48) *baserriko gizona* (M, 2;05) *atzoko moduan* (M, 3;01)
 (49) *halako makina bat* (O, 2;03) *hauxe etxeko erlojua* (O, 2;04)

Genitiboa beti agertzen da, haur bien ekoizpenetan, izenaren edo izen-sintagamaren muinaren ezkerrean, arauak eskatzen duen legez. Arlo honetan, beraz, nabaria da gaztelaniarekiko hurrenkerarekiko bereizketa.

Beste zenbaitetan esan dugun moduan, bada hurrengan **-a** marka eranzteko zailtasunik:

- (50) *aitatxorena modukoa* (M, 2;07)

Lehenago aipatu dudana legez, jokabide honek zerikusia du lexikoaren jabekuntzarekin. Gainera, genitibo biak, orokorra eta lekuzkoa, **-a** markaz mugatuak goizago agertzen dira haur biengan.

Bestalde, badira *besteak* multzoan sailkatu ditudan beste egitura batzuk ere. Hona hemen zenbait adibide:

- (51) *hauetariko bat* (M, 2;11) *nire liburuarena* (M, 2;11)
 (52) *kartoizkoa* (O, 2;05) *medikuarena* (O, 2;06)

3.1.4. Pluralaren erabilera.

Numeroaren inguruan singularreko formak dira haur biek, beste hizkuntzetan gertatzen den legez (ikus Aguirre 1994 edo Brown 1973), erabiltzen dituzten lehenak. Pluraleko formak agertzean, aurkakotasuna gauzatzeko hain zuzen, haurra numero kategoriaz jabetu dela baietsi ohi da.

Euskaraz pluralak egitean, izen-sintagmei **-k** morfema eranstean zaie. Ikerketa honetako haurrek pluraleko adibideak noiz eta zenbaten ekoizten dituzten ikusteko 14. eta 15. taulak prestatu ditut.

14. TAULA
PLURALEKO FORMEN ERABILERA HAUR ELEBIDUNARENGAN

2;04;11	1	2;09;04	10	3;01;16	14
2;04;27	2	2;10;04	7	3;02;06	18
2;05;10	2	2;11;09	4	3;02;15	15
2;06;00	3	2;11;16	17	3;03;01	3
2;06;11	1	3;00;16	23	3;04;12	7
2;07;01	7	3;00;20	23	3;05;10	11
2;07;24	2	3;01;04	21	3;06;14	7
2;08;19	11				

15. TAULA
PLURALEKO FORMEN ERABILERA HAUR ELEBAKARRARENGAN

2;01;19	2	2;05;21	11	2;09;00	14
2;02;00	5	2;06;05	21	2;10;12	22
2;03;09	5	2;06;24	11	2;10;28	11
2;04;11	8	2;07;05	10	2;11;12	38
2;04;24	2	2;08;13	20	3;00;02	4
2;05;05	5	2;08;18	5	3;00;10	18

Korpus bietan ikus daitekeenez, nabaria da pluraleko formak singularrekoen ostean ekoizten dituztela. Halere, nabaria da haur elebidunak elebakarrak baino beranduago darabiltzala pluralak.

Edozelan ere, haur bien korpusetan ikus daitezke, hasieran pluraleko forma-ezaren adibideak:

(53) *betaurrekoa(k)* (M, 2;03) *patata(k) diez (dira)* (M, 2;03)

(54) *beste artazia* (O, 2;00)

Hasieran ikus daitekeen pluraleko markaren gauzatze eza alde batera utzirik, kategoria honen gainerantzeko berezitasun guztiak arauaren arabera gertatzen dira aztertu ditudan korpus bietan. Hasierako pluralaren erabilera-ezak jabekuntzaren garapena mailakatua dela erakusten digu, batetik. Bestetik, aldi aurremorfoloogikoaren hipotesia bermatzen du.

3.1.5. Adjektiboaren agerrera.

Adjektiboaren agerrera oso goizetikoa da haur biengan, morfologiaren agerraren aurretikoa alegia. Alabaina, atal honetan izenari laguntzen dion adjektiboaren agerrera aztertuko dut, izen-sintagmaren egituraren garapena arakatzearan adjektiboaren egongunea zelan burutzen duten ikustea interesatzen zaidalako.

Adjektiboak, arauak horrela eskaturik, beti ekoizten dituzte izenaren eskuman:

(55) *kotxe txikitxo* (M, 2;06) *ai, kotxe txikitxoak* (M, 2;10)

(56) *ume txikiak bakar(r)ik ez* (O, 2;02) *teilatu koitadua* (O, 2;04)

Haur elebakarraren korpusean bada -a marka izenari eta adjektiboari eransten dion adibide bat ere:

(57) *horrek honi hankia luzia* (O, 2;02)

Adjektibo biko ekoizpenak ere ikus daitezke haur bien ekoizpenean. Orain arte ikusi dugun legez, haur elebakarraren korpusean hasiera baten -a

marka errepikatu egiten da -adibide batean, bestean ez-. Hona hemen adibideak:

(58) *zatarra zatarra dena, guztia* (O, 2;04)

(59) *zikin-zikinak* (O, 2;04)

(60) *haundi-haundia* (M, 2;11)

Izenen bati lagundurik adjektiboez ekoitziriko kopuruak 16. eta 17. tauletan ikus daitezke. Egitura guztietan adjektiboa izenaren eskuman agertzen da.

16. TAULA

ADJEKTIBOZ ERAIKITAKO ADIBIDE-KOPURUAK HAUR ELEBIDUNARENGAN

2;06;00	1	3;01;16	2	3;05;10	1
2;10;04	1	3;02;06	1	3;06;14	3
2;11;16	1	3;04;12	3		

17. TAULA

ADJEKTIBOZ ERAIKITAKO ADIBIDE-KOPURUAK HAUR ELEBAKARRARENGAN

2;02;00	4	2;07;05	3	2;10;12	2
2;04;11	1	2;08;13	10	2;10;18	5
2;04;24	1	2;08;18	1	2;11;12	1
2;05;21	2	2;09;00	11	3;00;10	4

Nabarmena da haur elebakarrak sarriagotan darabilela egitura hau elebidunak baino. Nolanahi ere, beti arauaren arabera agertzen zaigu haur bien ekoizpenetan.

3.1.6. Bi izenekin osaturiko sintagmak.

Haur biak jabetu dira euskarak eskaintzen dien aukera honetaz. Edozelan ere, bildu ditudan adibideak oso urriak dira haur bien ekoizpenetan. Hona hemen hauetariko zenbait:

(61) *zaldi gainean* (M, 2;08)
bolatin-pirata (M, 2;11)
karrera-errobada (M, 3;01)

(62) *t(r)ipa-azala* (O; 2;00)
be(g)itu, euri-hotsa ikusten da, be(g)itu, entzuten da (O, 2;05)
o(ra)in kamioi-saltzailea (O, 2;10)

Aurkitu ditudan datuen arabera, bada, hiru urte egin aurretik haurrak egitura honetaz jabetu direla esan daiteke. Datu honek, elebidunarengan, hizkuntza bietako izen-sintagmen egitura-bereizketa bermatzen du, halako egiturarik ez baitago gaztelaniaz.

3.1.7. Beste zenbait egitura.

Atal honetan partitiboak eta **barik** elementuarekin -elebakarraren korpusen baino ez- ekoitziriko adibideak aurkeztuko ditut.

Guztiak datoz bat arauarekin eta jabekuntzaren lekukotasuna jasotzera mugatuko naiz. Hona hemen zenbait adibide:

- (63) *hemen ez dau (dago) lekurik (M, 2;06)*
besterik ez (M, 2;07)
honek ez deko (dauka) txapelik (M, 2;08)
baina ez deko (dauka) etxerik (M, 3;00)
- (64) *ez deko (dauka) besteak palarik (O, 2;05)*
ez deko (dauka) hankarik (O, 2;05)
ez dau (dago) kotxerik (O, 2;05)
zergatik ez dau (dago) gizonik? (O, 2;08)
- (65) *teilatu barik (O, 2;04)*
ta ni etxe barik geratu (O, 2;05)

Edozelan ere, nabaria da partitiboa ez dela hasieran agertzen:

- (66) *za(ra)ta ez! (M, 2;01)*
- (67) *oihala ez (O, 1;11)*
ez dau (dago) beste bat (O, 2;04)

Ezaugarri hau, hots, partitiboa beste egiturak baino beluago agertzea, jabekuntzaren garapen mailakatuaren hipotesiaren aldeko datua dela iruditzen zait.

4.1.8. *Euskarazko korpusaren laburbilketa.*

Hemen aurkeztu ditudan datuek izen-sintagmaren oinarrizko egituraren erabilerak baieztatzen dizkigute. Egitura konplexuagoak, beranduago agertzen dira haur bien ekoizpenetan.

Datuen arabera ondoko proposamenak bildu ditut izen-sintagmaren jabekuntza-garapenari buruz:

1. Haur biek, elebakarrak zein elebidunak, orokorrean, antzeko garabidea erakusten digute. Duda barik, elebidunaren garapena elebakarraren berdintsua da eta ez du, beraz, gramatika-bateratuaren aldeko daturik edo argudio-rik erakusten.

2. Haur bien ekoizpenetan, hasiera-hasieran, aldi aurremorfoloikoa baiets daiteke. Aldi honetan hurrek ez dute morfologia-ezaugarri-rik edo arau-sintaktikorik erabiltzen, helduok darabiltzagun moduan behintzat.

Aldi aurremorfoloikoko honetan haur euskaldunek lexikoa, izenak eta adjektiboak hain zuzen, -a markaz bereganatzen dituzte.

Nabaria da, halaber, aldi honetan genitiboaren marka, genitiboak eskatzen duen hurrenkera, partitiboaren marka, pluralaren morfema, eta abar, ez dituztela erabiltzen.

3. Garapen morfoloikoa, izen-sintagmari dagokion heinean, -a marka erantzten hasten dira gauzatzen haurrak. Baieztapen hau Idiazabalek (1991) erakutsi zigun eta horrela gertatzen da haur hauekin ere.

Marka honen erantzeta beste determinatzaile batzuen erabilera zein osagai biko sintagmetan marka bakarreko estrategia ikasterakoan ikus daiteke.

4. Garapen morfoloikoa hasten denean, aldi luze batean, hurrek orain-

dik aldi aurremorfoloikoari dagozkion egiturak erabiltzen jarraitzen dute. Fenomeno hau nabari-nabaria da -a markaren gehiegizko ekoizpenean.

Marka hau sintagmaren osagai guztietan gauzatzea, arauaren aurka, haur biengan ikus daiteke, adjektibo bi elkartzean edo izenaz eta adjektiboaz gauzaturiko izen-sintagmetan. Antzeko zailtasuna erakutsi dute hasierako ekoizpen mugagabeetan, -a marka izenari erantsi baitiote arauaren aurka.

5. Hasierako ekoizpenetan, batzuetan, haur biengan aurki daitezkeen alderantzizko hurrenkerako adibideak, aldi aurremorfoloikoaren berezitasunari dagozkio, eta ez, pentsa daitekeenaren aurka, elebidunengan gerta daitezkeen balizko gramatika-bateraketaren emaitzari.

Frogatzat fenomeno hau haur elebakarrarengan ere ikusi dugula adieraz dezakegu.

6. Erakusleek hartzen duten egongunea, izenaren ezkerrean alegia, badi-rudi bizkaierarekin harremanetan dauden haur euskaldunei gertatzen zaiela, eta ez bakarrik haur bizkaitar elebidunei. Egitura honen arrazoa, beraz, haurrek entzuten duten input bereziari zor diote eta ez balizko gramatika-bateraketari. Nire ustez, fenomeno honekin zerikusi handia du erakusleen erabilera deiktiko edo seinalatzaile goiztiarrak ere, halako gehienetan erakusle seinalatzailea ekoizpenaren ezkerrean jartzen baitute, izenaren aurre-aurrean (ikus (20) adibidea).

Kontutan hartu behar dugu, haur elebakarrak ere fenomeno bera erakusten digula.

7. Laburbildurik, ez dut aurkitu hizkuntza-bateraketaren aldeko frogarik euskarazko korpusean. Elebidunak elebakarrak bezalako garabidea jorratzen du, honek daukan gaitasun berbera erakutsirik.

8. Bestalde, jabekuntza mailakatuaren aldeko frogak bildu ditudala iruditzen zait. Hasteko, aldi aurremorfoloikoa gauzatzen dute. Ondoren, garapen morfoloikoa eta sintaktikoa gertatzen da.

Aldi aurremorfoloikoan helduon arau sintaktikoak eta ezaugarri morfoloikoa ez erabiltzean akatsak egiten dituztela esan daiteke. Jabekuntza mailakatu izatearren, sarritan jokabide beretsua ikus daiteke garapen morfoloikoa eta sintaktikoa hasi eta gero, haurrek aldi aurremorfoloikoan erabilitako egiturak, oraindik ere, erabiltzen jarraitzen dutelako.

Euskararen izen-sintagmaren jabekuntza era mailakatu gauzatu dute haurrek. Gainera haur bien garapena antzekoa izan da: determinatzaileen jabekuntza izan da goizetikoena eta genitiboarena eta numeroarena beluago ikus daitezke.

Determinatzaileen artean ere, -a eta **bat**, edo **beste** aurredeterminatzailea, erakusleak edo zenbatzaileak baino goizago ekoitzi dituzte.

Numeroari dagokionez, hasierako singularreko formek numero-aurkakotasunik ez digute erakusten. Geroago agertzen diren pluraleko formek, singularren eta pluralaren arteko aurkakotasuna bermatzean, numeroaren jabekuntza baiesten dute. Azkena mugagabearen jabekuntza da haur biengan: partitiboaren erabilera eta galdetzaile eta harridura-determinatzaileekin burutzen dituzten sintagma mugagabeak. Numero-kategoriaren hiru aukerak datatu ezkerre, honako adinak jar ditzakegu haur biengan:

Elebakarrak, singularra 2;00ko adinaz, plurala 2;01koaz eta mugagabea 2;05koaz; elebidunak, singularra 1;11koaz, plurala 2;04koaz eta mugagabea 2;06koaz.

Idiazabalek (1995), lehenago ere esan dudan legez, beste haur euskaldun baten datuak eskaintzen dizkigu. Ikerlari honek eskaintzen dizkigun datuek eta interpretapenak bermatu egiten ditu nire hipotesia: hiruren garabideak antzekoak baitira. Ezberdintasun bakarra erakusleen erabilerari dagokio, Idiazabalek arakatu duen haurrak, bizkaitarra ez denak, ez baitu izenaren ezkerrean egundo erakuslerik gauzatzen.

3.2. Gaztelaniaren izen-sintagmaren garapena.

Atal honetan gaztelaniaren izen-sintagmaren garapena arakatuko dut. Lehenago euskarazkoan egin dudan bezala, hasieran aldi aurremorphologikoa erakutsiko dut eta, jarraian, garapen morfologikoa.

Garapen morfologikoaren barruan determinatzaileen agerrera, generoaren erabilera, numeroaren erabilera, genitiboaren agerrera eta adjektiboen agerrera ikusiko ditugu. Amaitzean, ondorioen laburbilketa.

3.2.1. Aldi aurremorphologikoa.

Euskarazko korpusean erakutsi dudan legez, gaztelaniakoan ere aldi aurremorphologikoa ikus daiteke haur elebidunaren ekoizpenean.

Aldi aurremorphologikoa honetan, haur elebidunak, bi eratako izen-sintagmak gauzatzen ditu izentzat eta adjektibotzat jo daitezkeen unitate lexikoe-kin.

Batetik, inolako determinatzailearik gabeko ekoizpenak burutzen ditu:

(68) *t(r)en casa palo (M, 1;07)*

Bestetik, batzuetan aurredeterminatzaile deituko dudan osagai batez baliatzen da izen-sintagmak, edo izenak eta adjektiboak, ekoiztean:

(69) *e tate a pelo u coche (M, 1;07)*

Fenomeno bera ikusi izan dute beste zenbait ikerlarik (Hernández Pina 1984, López Ornat 1994, 1995, Aguirre 1995) haur gaztelau elebakarrengan ere. López Ornatek, adibidez, aurredeterminatzailea deitzen dio izenen aurrean haurrek jartzen duten forma honi. Ikertzaile honek esaten duen legez, aurredeterminatzailearen forma *i* ez den edozein bokal izan daiteke. Aguirrek, ostera, *a* forma baino ez duela aurkitu esaten du -berak bilduriko haurren ekoizpenetan agertzen den *e* forma *el* artikulua aldaeratzat jotzen baitu- eta berarentzat determinatzailea izanik morfologiaren erabilera erakusten digu.

Haur katalanengan ere *a* forma baino ez du aurkitu Capdevillak (1996). Ikerlari honek, aldiz, bokal neutroa deitzen dio forma honi, berarentzat ez baita determinatzailea, izenarekin ez ezik, aditzen aurre-aurrean ere gauzatzen dutelako.

Nik, oraingoz behinik behin, aurredeterminatzailetzat joko ditut haurrek aldi goiz honetan ekoizten dituzten bokal hauek, *e*, *a*, *u* alegia.

Aztertu dudan haur elebidunaren korpusean aldi aurremorphologikoa 1;10ko adina duen arte luzatzen da, une honetan ikusten baitut determinatzaileen agerrera (ikus 18. taula).

18. TAULA
GAZTELANIAZKO DETERMINATZAILEEN AGERRERA HAUR ELEBIDUNAREN
EKOIZPENEAN

	-ø	aurred.	determ.		-ø	aurred.	determ.
1;07;14	6	1		2;04;19	5		11
1;07;27	5	9		2;05;19	1		4
1;09;14	2	2		2;06;11	1		19
1;09;22	4	5		2;07;01			21
1;10;13	6	4	3	2;07;28	1		31
1;11;02			6	2;08;18	2		24
1;11;14	1	3	4	2;08;29	1		21
2;00;00	3	2	9	2;10;12			44
2;00;20			2	2;11;10			29
2;00;22		1	4	2;11;28			35
2;01;14	5	4	16	3;00;20			33
2;01;21	3	2	6	3;01;04			33
2;02;14	5	1	21	3;01;18			45
2;03;02	1		14	3;02;07			37
2;03;11	1	1	5	3;02;14			36
2;04;11	1	3	14	3;03;01			14
				3;03;07			21

Azpimarratzekoa iruditzen zait aurredeterminatzailea beti agertzen dela ezkerrean aldi aurremorfoloikoa zein garapen morfoloikoa erakusten duen aldi. Gaztelania ikasten diharduten haur elebatarrek ere egongune berean ekoizten dute aurredeterminatzailea (López Ornat 1995, Hernández Pina 1984, Aguirre 1995).

3.2.2. Determinatzaileen agerrera.

Gaztelaniaz ikus ditzakegun lehen determinatzaileak 1;10 adineko grabaketan ditugu. Lehenago, ikus aurreko taula, izenak eta adjektiboak eurak bakarrik edo aurredeterminatzaile batez lagundurik gauzatu ditu haur elebidun honek.

Determinatzaileen garapena 1;10 adineko grabaketatik aurrera ikus dezakegu. Garabidea, edozelan ere, ez da bat-batekoa. Horrela, aldi luze batean, behin determinatzaileen erabilera data daitekeen aroan, haurrak aurredeterminatzaileak ere erabiltzen jarraitzen du. Halaber, inolako mugatzailerik gabeko eraiketak ere gauzatzen ditu. Fenomeno hau, nire ustez behintzat, garapen mailakatuari zor zaio. Honela, kategoria berriren batez jabetzean, hasieran, haurrak ez dira gai kategoria ikasi berri hau beti erabiltzeko, sarritan aurreko aldiko egiturak gauzatzen jarraitzen dutelarik. Egoera honetan, determinatzailearen ezaugarriaz jabetzean, hasieran bederen, haurrek aldi aurremorfoloikoa aurredeterminatzailearen batez edo inolako determinatzailerik gabe eraikitako egiturak erabiltzen dituzte oraindik ere.

Haur elebidunaren ekoizpenean determinatzaileen agerrera nolakoa den ikusteko 19. taula prestatu dut. Bertan determinatzaileen garapena sailkatzean honako motetakoak bereizi ditut: artikulua mugatuak, artikulua mugagabeak, erakusleak, edutezkoak, **otro** elementua, zenbatzaileak eta, azkenik, galdezkaileak eta harridurazkoak.

19. TAULA
DETERMINATZAILEEN AGERRERA HAUR ELEBIDUNARENGAN: SAILKAPENA

	art. mugat.	art. mugag.	erak.	edut.	otro	zenbatz.	gald. eta harrid.
1;10;13	1	1	1				
1;11;02	3	1		1		1	
1;11;14	1	1					
2;00;00	3	2		2			
2;00;20		2					
2;00;22		3				1	
2;01;14	8	8		1			
2;01;21	2	2			2		
2;02;14	13		3	1	4		
2;03;02	3	6		1	4		
2;03;11	1	2	1	1			
2;04;11	5	1	6	1			
2;04;19	8	2	1				
2;05;19	2	2					
2;06;11	5	8	1		4	1	
2;07;01	13	4	2	1	1	1	
2;07;28	22	5		2	1		
2;08;18	10	9	1	1	4		
2;08;29	14	4		1	1		1
2;10;12	29	11	2		1	1	
2;11;10	16	5	4	1	1	1	1
2;11;28	21	11		1	1	1	1
3;00;20	15	8	7	1	1	1	
3;01;04	18	11	2		2		
3;01;18	11	23	6	2		2	
3;02;07	12	20	3	1	1		
3;02;14	26	6	1	3			
3;03;01	7	4		2	1		
3;03;07	8	9	1	2	1		

Bildu ditudan datuetan artikuluko mugatuak, mugagabeak eta erakusleak, adibide banarekin, batera agertzen zaizkigu haur elebidunaren korpusean (1;10). Jarraian edutezkoen eta zenbatzaileen adibide bana ikus dezakegu (1;11). Galdetzaileak eta harridurazkoak azkenetarikoak dira agertzen (2;08).

Aguirrek (1995) arakatu dituen haur elebazarren korpusetan ere aldi batean determinatzaileak eta aurre-determinatzailea aurkitzen dira:

... las formas el y la, que coexisten con la ya mencionada forma a,..., esta a la usan ambos niños -berak aztertzen dituenak alegia- como una especie de artículo comodín, que usan indistintamente para masculino y femenino, singular y plural.

Aguirrek arakatu dituen haur elebazarren korpusetan ere aldi batean determinatzaileak, aurre-determinatzaileak -nik darabilan terminologian, noski- eta inolako determinatzailearik gabeko unitateak aurkitzen dira. Alabaina, Aguirreren interpretapena ezberdina denez, datuak aurkezten dituenean ez dago batere argi determinatzaileen erabilera nik aurre-determinatzailetzat jo ditudan formekin batera gertatzen denentz. Aguirrek, batetik, zera dio:

las formas el y la, que coexisten con la mencionada forma a, ...

Baina ez du argitzen a formaren erabilera, nire interpretapenean aurre-determinatzailea dena, artikuluen aurrekoa denentz.

Bestetik, zera eranstean du Aguirrek:

esta a la usan ambos niños como una especie de artículo comodín, que usan indistintamente para masculino y femenino, singular y plural.

Aguirrerren datuetan, beraz, **a** determinatzailetzat agertzen zaigu, eta zaila da bereiztea determinatzaile eta aurre-determinatzaileen erabilera berak eskaintzen dizkigun datuetan. Gainera, **e** forma -niretzat aurre-determinatzailea dena- **el** artikulua den aldaeratzat jotzen du eta ez du hau ere bereizirik erakusten ematen dituen datuetan.

Aguirrek aurkezten dizkigun datuetatik, beraz, ondoko ondorioak atera ditzakegu:

- haurrek, berak arakatu dituenak, hasiera batean inolako determinatzailerik gabeko unitateak eta **a** forma darabiltzatela,
- determinatzaileen erabilera hasten denean, nabaria dela **a** formaren eta determinatzailerik gabeko ekoizpenen gauzapenen jarraipena,
- eta azkenik, ez dagoela argi, guri dagokigunez behintzat, determinatzaileak, nik ere determinatzailetzat hartzen ditudanak **-el/ la/ un/ una/ otro/ ...-**, hasiera-hasieratik erabiltzen dituzten ala, ostera, ikertzaile honek determinatzailetzat jotzen dituen hasierako formak **a** eta **e** diren, zeintzuk nik aurre-determinatzailetzat jotzen ditudan.

Gainera **a** forma, Aguirrek berak aurkezten dizkigun datuetan, aditzen aurrean ere ekoizten dute haurrek:

(70) *a dormir (Magín 19) mamá, a pongo (Magín 20)*

3.2.2.1. Artikulu mugatuak.

Nik bildu ditudan datuetan haur elebidunak artikulu mugaturen batez gauzatzen duen lehen adibidea hau da:

(71) *el coche (M, 1;10)*

Une honetatik aurrera grabaketa guztietan agertzen zaigu artikulu mugaturen bat. Adibide guztietan, arauak eskatzen duen legez, izenaren edo izen-sintagmaren muinaren ezkerrean jartzen du beti artikulua.

Haur honen korpusean **el** artikulua, arauaren arabera forma maskulinoei dagokiena, agertzen den lehena da. Ondoren, forma femeninoei dagokien **la** artikulua agertzen zaigu. Azkenik, pluraleko **los** eta **las** ikusi ahal izango ditugu. Berezitasun hauek generoaren eta numeroaren erabilera aztertzean ikusiko ditugu zehatzago.

Hernández Pinak (1984) aztertutako haurrak ere goizago darabil **el** artikulua. López Ornatek (1995) aztertzen duenak, ostera, **la** forma darabil goizago. Aguirrek (1995) zehatzago aztertzen duen Magín haurrak, aldiz, **el** eta **la** batera ekoizten ditu. Edozelan ere, kontutan izan behar dugu nik aztertu dudana haurrak hilabeteko epean erabiltzen dituela forma biak.

3.2.2.2. Artikulu mugabeak.

Artikulu mugabeaz osaturiko lehen adibidea une berean ekoizten du haur elebidunak:

(72) *un camión (M, 1;10)*

Multzo honetan ere, maskulinoari dagokion forma izan da erabili duen lehena. Hurrengoak forma femeninoei dagokien **una** singularra eta pluraleko formak izango dira.

Artikulu mugagabeak ere beti ekoizten ditu izen-sintagmaren muinaren ezkerrean, arauak eskatzen duen legez.

Haur honen ekoizpenean ez dut haur elebazarren korpusetan bildu den **un** artikulua ordezko **uno** formaren erabilera aurkitu. Aguirrek (1995), esate baterako, ondoko adibidea aipatzen du:

(73) *uno helado (Magín, 23)*

Erabilera honek, nire ustez, zenbatzaile-determinatzaileen jabeakuntzarekin du zerikusia.

3.2.2.3. Erakusleak.

Erakusleren baten lehen erabilera artikulu mugatu eta mugagabeekin batera ikus dezakegu:

(74) *e(s)te coche (M, 1;10)*

Hurrengo ekoizpenak 2;02 adineko grabaketatik aurrera aurkitu ditut. Datuen arabera, beraz, badirudi beranduago burutzen duela erakusleen jabeakuntza.

Nolanahi ere, erakusleak beti agertzen zaizkigu izen-sintagmaren ezkerrean, gaztelaniaren arauak eskatzen duen bezala.

Haur honek darabiltzan erakusleak, lehen dataketa adierazirik, 20. taulan ikus ditzakegu:

21. TAULA
ERAKUSLEEN LEHEN DATAKETA

este	1;10;13	ese	2;02;14
esta	2;02;14	esa	2;11;10
estos	3;00;20	esos	
estas	3;00;20	esas	3;03;07

Hirugarren mailako erakuslerik ez dut aurkitu. Bestalde, singularreko forma maskulinoak femeninoak baino goizago ekoizten dituela baieztatu daiteke, eta singularrak pluralak baino lehen ere bai.

3.2.2.4. Edutezkoak.

Edutezko adibiderik goizetikoena hurrengo hilabetean aurkitu dut:

(75) *sí, a mi tato (cuarto) (M, 1;11)*

Hemendik aurrera sarritan ikus dezakegu halako adibideren bat edo beste. Baina 5 hilabete beharko ditugu edutezko beste formaren baten erabilera ikusteko, **tu** 2;04ko adinaz ekoizten baitu lehen aldiz. Edutezko forma guztien egongunea izen-sintagmaren muinaren ezkerrean da beti.

Bada adibide berezi bat edutezkoen artean:

(76) *el tu coche (M, 2;04)*

Gaztelaniaz halakoetan artikulua ez da beharrezkoa, halere, haurrak ekoitzi egin du, nolabait, arauaren aurka. Haur gaztelaniadun elebakarren artean ere aurkitu dira halako adibideak. Horrela, Hernández Pinak (1984), esate baterako, ondoko adibidea bildu zuen berak arakatu zuen haur elebakarrarengan:

(77) *y el e(s)to, para qué es? (31 meses)*

Korpus osoan aurkitu ditudan edutezko formak 21. taulan ikus daitezke, lehen erabileraren data bertan adierazten dudalarik.

21. TAULA
EDUTEZKO FORMEN LEHEN DATAKETA

mi	1;11;02	nuestro	2;08;18
tu	2;04;11		
su	2;07;28		

Nabaria da **mi** formaren erabilera bakarra dela 2;04ko adina duen arte, aldi horretan 7 adibide ikus ditzakegularik.

3.2.2.4. Zenbatzaileak.

Lehen determinatzaile zenbatzailea goiz agertzen bazaigu ere, ez du haurrak pluralari dagokion morfema ekoizten berarekin doan izenean:

(78) *cuatro gato (M, 1;11)*

Pluralaren garapena geroago zehaztuko dut. Edozelan ere, zenbatzailearen egongunea izen-sintagmaren muinaren ezkerrean ikus dezakegu adibide guztietan.

Zenbatzaile zehaztugabeak ere leku berean ekoizten ditu hasiera-hasieratik:

(79) *mucho coche (M, 2;00)*

3.2.2.5. Beste determinatzaileak.

Otro elementua, izenen batekin doalarik, beti gauzatzen du ezkerrean:

(80) *ot(r)a toalla (M, 2;01)*

3.2.2.6. Galdetzaileak eta harridurazkoak.

Galdetzaileak zein harridura-determinatzaileak ere ezkerrean jartzen ditu beti. Nolanahi ere, forma hauen erabilera, beste determinatzaileekin erkatu ezkerrean, beluago ikus dezakegu:

(81) *¿qué vagones? (M, 2;08) ¡qué bonito! (M, 2;11)*

Badirudi, beraz, determinatzailearen egonguneaz hasiera-hasieratik jabetu dela eta arlo honetan ez duela inolako oztoporik aurkitu.

3.2.3. Generoaren erabilera.

Determinatzaileen jabekuntzaren ondoren, generoaren berezitasuna da

haurrak erakusten digun hurrengo. Generoaren jabeakuntzaren araketa egi-terakoan bi ataletan bereiziko dut. Batetik, determinatzaileen generoarena. Bestetik, izenen eta adjektiboen generoarena.

Determinatzaileen genero-bereizketa oso goiz burutzen du haur honek. Hasieran, 1;10 adineko grabaketan determinatzaile maskulinoak baino ez badarabiltza ere (ikus (71), (72) eta (73) adibideak), hurrengo hilabetean determinatzaile femeninoak hasten da erabiltzen:

(82) *la rueda* (M, 1;11)

Determinatzaileen generoen erabilera zehatzago ikusteko 22. taulara jo daiteke. Taulon, determinatzaile-mota ezberdinekin burutzen duen genero-bereizketa ikus dezakegu.

22. TAULA
DETERMINATZAILEEN GENEROAREN ERABILERA HAUR ELEBIDUNARENGAN

	art.mugat. mask.-fem.	art.mugat.	erakusl.	otro/a	edutezk. (pluralak)
1;10;13	1 - 0	1 - 0	1 - 0		
1;11;02	0 - 3	1 - 0			
1;11;14	0 - 1	3 - 0			
2;00;00	2 - 2	1 - 1			
2;00;20		1 - 1			
2;00;22		2 - 1			
2;01;14	6 - 2	8 - 0			
2;01;21	2 - 0	1 - 1		1 - 1	
2;02;14	10 - 3		2 - 1	4 - 0	
2;03;02	3 - 0	5 - 1		4 - 0	
2;03;11	1 - 0	2 - 0	1 - 0		
2;04;11	3 - 2	0 - 1	6 - 0		
2;04;19	5 - 3	0 - 2	1 - 0		
2;05;19	1 - 1	0 - 2			
2;06;11	3 - 2	7 - 1	1 - 0	4 - 0	
2;07;01	10 - 3	1 - 3	1 - 1	1 - 0	
2;07;28	12 - 9	5 - 0		1 - 0	
2;08;18	8 - 2	6 - 3	1 - 0	4 - 0	1 - 0
2;08;29	8 - 6	3 - 1		1 - 0	
2;10;12	16 - 13	6 - 5	2 - 0	1 - 0	
2;11;10	6 - 10	3 - 2	0 - 4	1 - 0	
2;11;28	11 - 10	7 - 4		1 - 0	
3;00;20	10 - 3	5 - 3	5 - 1	1 - 0	
3;01;04	12 - 6	7 - 4	2 - 0	0 - 2	
3;01;18	5 - 6	17 - 7	3 - 3		
3;02;07	9 - 3	11 - 9	2 - 1	1 - 0	
3;02;14	12 - 14	4 - 2	1 - 2		
3;03;01	3 - 4	2 - 4		0 - 1	
3;03;07	4 - 4	7 - 2	0 - 1	1 - 0	

Formarik goizetikoena eta erabilienak maskulinoari dagozkionak izanik ere (1;10), femeninoari dagozkion formak ere goiz erabiltzen dituela ikus dezakegu (1;11).

Edozelan ere, badu arazorik arlo honetan, lantzean behin genero-akatsak egiten baititu determinatzailea aukeratzean:

(83) *un cosa* (M, 2;03) *una caserio* (M, 2;04)

<i>una monte</i> (M, 2;04)	<i>un teta</i> (M, 2;07)
<i>un chica</i> (M, 2;08)	<i>un casa</i> (M, 2;10)
<i>el torre</i> (M, 2;11)	<i>el rueda</i> (M, 3;02)

Haur elebidun honek burutzen dituen genero-akatsak zein garrantzi izan dezaketen arakatzeko 23. taulan komuntadura egokidun determinatzaile maskulino eta femeninoak sailkatu ditut batetik eta, bestetik, komuntadura desegokia adierazten duten determinatzaileak.

23. TAULA
DETERMINATZAILIEN GENEROAREN ERABILERA: EGOKITASUNAK ETA
EZEGOKITASUNAK

	maskulinoak	femeninoak	ezegokitasunak
1;10;13	3		
1;11;02	1	3	1?
1;11;14	3	1	
2;00;00	3	3	
2;00;20	1	1	
2;00;22	2	1	
2;01;14	14	2	
2;01;21	4	2	
2;02;14	16	4	
2;03;02	12	1	1
2;03;11	3	1	
2;04;11	9	3	1
2;04;19	6	5	1
2;05;19	1	3	
2;06;11	11	3	1
2;07;01	13	7	1
2;07;28	20	9	1
2;08;18	20	5	2
2;08;29	11	8	1
2;10;12	26	17	1
2;11;10	10	16	1?
2;11;28	19	14	1
3;00;20	21	10	
3;01;04	21	12	1
3;01;18	25	16	3
3;02;07	23	13	1
3;02;14	17	16	1?
3;03;01	7	5	
3;03;07	12	7	

Ezegokitasunek, taulan ikus daitekeen moduan, egundo ez dute % 10 gainditzen. Gehienetan erabilera zuzena da. Horrela, adibidez, 2;10 adineko grabaketan 43 aldiz darabiltza determinatzaileak egokitasun osoz eta behin baino ez ez-egoki.

Forma maskulinoak eta femeninoak, aurkakotasunean, 1;11ko adinetik aurrera erabiltzen dituen arren, erabilera ez-egokiak 2;03ko grabaketatik aurrera aurkitu ditut.

Kontutan izanik generoaren gramatika-kategoria haur hau ikasten ari den bigarren hizkuntzak, hots, euskarak, ez duela, ezegokitasun hauen ekoizpenak egoera elebidunarekin zerikusia duela pentsa daiteke. Agian, ikasten ari den hizkuntzetariko batek ez duen berezitasun batez jabetzeak lan handiagoa emango dio haurrari.

Hipotesi hau bahetzeko, gaztelania hutsa ikasten diharduten haur eleba-

karren garapena ikusi beharko dugu. Hernández Pinak (1984) aztertutako haurrak generoaren arloan zailtasunak izan dituela ikus dezakegu. Laburturik, hona hemen ikertzaile honek generoaren jabeakuntzaz dioena:

Sin embargo, hasta los 31 meses observamos casos de discordancia entre el artículo y su nombre (inanimado). Ejemplos:

- (84) *unos nubes altas (25 m.)* *el galleta (28 m.)*
la paradrapo (esparadrapo) (28 m.) *la matézono (el magnetófono) (28 m.)*

López Ornatek (1995) ere gauza bera dio: haur elebatarik gaztelatek arazoak izaten dituztela generoaren jabeakuntzaren hasieran. Ikerlari honen datuen arabera, generoaz numeroaz baino goizago jabetzen dira haurrak, hasieran eragozpenak dituzten arren.

Aguirrek (1995), aldiz, zera dio:

no comete -berak aztertu duen haurretariko bati buruz ari da- *errores de concordancia entre el artículo y su N(ombre). Es decir, como ya hemos señalado, utiliza su artículo a cuando no es capaz de utilizar la forma adecuada, porque no sabe, pero cuando usa una de las formas: el (e, el), la, los, un, lo hace sin errores. Sólo hemos encontrado el siguiente error de concordancia en los datos de los niños:*

- (85) *un niña (Ana, 26 meses)*

Edozelan ere, berak aurkezten dituen datuen artean beste honako adibide hauek ere aurki daitezke:

- (86) *otro flor (Magín 21)* *otro carta (Magín 21)*
otro naraña (araña) (Magín 22) *otra diente (Magín 22) ...*

Badirudi, beraz, haur elebidun honek ezagutzen duen eragozpena edo ezegokitasuna ez datorkiola bere izaera elebidunetik edo berak ikasten duen bigarren hizkuntzak halako gramatika-kategoriarik ez duelako ezagutzen. Haur elebidunaren genero-kategoriaren garapena elebatarren antzekoa da, ordea.

Nik aztertu dudako haur elebidunak gauzatzen dituen 20 ezegokitasunetatik (2 zalantzak), hamabostetan determinatzaile maskulino bat darabil -a bokalaz amaitzen den izenarekin. Behin baino ez du determinatzaile maskulino bat, *el* alegia, -a ez den bokalaz amaitzen den hitzen batekin ekoizten: *el torre*. Badirudi, beraz, ezin dugula baietsi determinatzaile maskulinoak eta femeninoak arau morfologikoren baten arabera bereizten dituela.

Kontutan izan, gaztelania bigarren hizkuntza bezala lauzpabost urtetik aurrera ikasten duten haur euskaldunek, sarritan, determinatzaileen bereizketa arau morfologikoren bati egokitzen diotela, eta horrela, determinatzaile femeninoak darabiltzatela -a bokalaz amaitzen diren hitzekin,

- (87) *la fantasma, la agua,*

eta determinatzaile maskulinoak beste bokalen batez amaitzen diren hitzekin,

- (88) *el torre, el moto, el mano, el tribu, ...*

Nik neuk ez dut halako jokabiderik ikusi haur elebidun honen garapenean, bildu ditudan datuetan behinik behin.

Bestalde, izenen eta adjektiboen generoaren gauzaperari buruz ez dut bildu adibide gehiegi. Edozelan ere, -o bokalaz amaitzen diren hitzak -a bokalaz amaitzen direnak baino goizago ikusi ditut:

(89) *gato* (M, 1;10) *gatito* (M, 2;02) *un poquito* (M, 2;03)

(90) *ot(r)a* (M, 2;01) *una roja* (M, 2;05)

Izenaren eta adjektiboaren arteko genero-komunztadura, nik bildu ahal izan ditudan adibideetan, beti zuzena da:

(91) *el cristal roto* (M, 2;07) *y éste un poquito más grandito* (M, 3;01)

Hernández Pinak (1984) ez zuen jokabide bera ikusi, eta zenbait ezegokitasun adierazi zituen berak aztertu zuen umearengan:

(92) *tiene volante roja* (28 meses) *máquina redondo* (31 meses)

Ikerlari honek dioenez, 32 hilabete izan arte halako ezegokitasunak ikusi zituen.

Hau guztiau ikusita, badirudi generoaren jabeakuntzan haur elebidun honen eta elebakar gaztelauen artean ez dagoela funtsezko ezberdintasunik.

3.2.3. Numeroaren erabilera.

Hasiera batean haur elebidunak ez darabil pluralari dagokion marka: -s, alegia. Zenbait ingurutan erraz igar daiteke markaren ekoizpen-eza:

(93) *(z)apato* (M, 1;09) *cuatro gato* (M, 1;11)

volatí(nes) (M, 2;00) *mucho coche* (M, 2;00)

Pluraleko markaren lehen erabilera urte bi egin eta gero ikus dezakegu:

(94) *está(n) to(do)s* (M, 2;01)

Pluralaren erabilera 24. taulan bildu dut. Bertan izenkiekin eginiko pluralak eta determinatzaileekin egindakoak bereizi ditut. Bestalde, erabilerak eta erabilera-erak ere sailkatu ditut, azken hauek erabiltzea dagokionean, noski.

24. TAULA
PLURALEKO MARKAREN ERABILERA

	det. pl.	- det. pl.	izenk. pl.	- izenk. pl.
1;09;22				1
1;10;13				1
1;11;14				1
2;00;00				1
2;00;22		1		1
2;01;14			1	
2;02;14	2			
2;03;02			1	
2;04;11			1	
2;06;11	2		3	
2;07;01	1	2	2	1
2;07;28	5	5	10	
2;08;18	3		5	1
2;08;29	2		3	1
2;10;12	1		12	

2;11;10	6	1	7
2;11;18	2	1	4
3;00;20	5		5
3;01;14	2	2	4
3;01;18	6	1	8
3;02;07	4	1	4
3;02;14	4	1	5
3;03;01	3		3
3;03;07	5		6

Pluralaren erabilera, lehenago esan dudan legez, hasieran izenkiekin ikus dezakegu, 2;01ko adineko grabaketatik aurrera. Determinatzaile pluralen erabilera, aldiz, hilabete beranduago aurkitu dut, 2;02ko adineko grabaketatik aurrera alegia:

- (95) *las hierbas* (M, 2;02) *los coches* (M, 2;07)
las zapatillas (M, 2;07) *unos caballos* (M, 2;08)

Determinatzaile pluralen ekoizpenean haur elebidun honek ezegokitasunak erakusten dizkigu, lantzean behin singularrari dagokion forma baitarabil pluralekoaren orde:

- (96) *a la caballos* (M, 2;07) *la tetas* (M, 2;07)
la pinturas (M, 2;07) *la casas* (M, 2;11)
el hankas (M, 2;11) *lo vagabundos* (M, 2;11)
tu pañuelos son grandes (M, 3;01)

Aurreko taulan ikus dezakegunez, ezegokitasun-kopurua oso nabarmena da haurrak 2;07 adina duenean: 13 ekoizpenetatik 7tan, % 50 baino gehiagotan, beraz. Gainerakoetan, aldiz, lantzean behin baino ez dakusagu ezegokitasunen bat.

Baliteke ezegokitasun hauek euskararen eraginari dagozkiola pentsatzea. Euskarak badu numeroaren gramatika-kategoria, baina, gaztelaniaz ez-bezala, euskal izen-sintagmaren baitan ez da numero-komunztadurarik gertatzen. Euskaraz, numeroaren marka izen-sintagmaren eskuman gauzatzen da. Gaztelaniaz, ordea, izen-sintagmaren osagai guztiak markatu behar ditugu pluraleraz.

Euskararen eraginaz, beraz, baliteke haur elebidun honek gaztelaniaz ere behin baino ez markatzea plurala, izen-sintagmaren eskuman. Horrela azalduko litzateke determinatzaileek numero-komunztadurarik ez gauzatzea.

Alabaina, numero-komunztadura badarabil gaztelaniaz. Ekoizpen gehienetan egoki darabil gainera. Gaztelaniaren eta euskararen arteko ezberdintasunaz jabetu dela esan daiteke, beraz.

Gainera, euskal egituraren eraginaz hitzegiten hasi aurretik ondoko itaunari ihardetsi beharko genioke: nola jabetzen dira numeroaz eta numeroaren komunztaduraz gaztelania ikasten diharduten haur elebakarrak?

Hasteko, Hernández Pinak (1984) eta López Ornat (1995) diotenez, generoa numeroa baino lehenago darabilte. Gainera, numeroaren arloan ezegokitasunak dituztela ere aipatzen dute. Hernández Pinak (1984) dioenez, berak aztertu zuen haurrak numeroaren jabetasuna guztiz burutu zuen 34 hilabete zituenean, hots, hiru urte egin aurretik. Halere, berak ez du ezegokitasunen adibiderik aipatzen, eta badirudi izenkiekin gauzatzen den pluralari buruz diharduela.

Aguirrek (1995) eskaintzen dizkigun datuetan badakusagu -s morfemaren erabilera-eza haur elebkarren ekoizpenaren hasieran:

- (97) *po papapo (los zapatos) (Magín 19) lo papapo (Magín 20)*
lo nene (Magín 21)

Geroago, izen-sintagmaren barruko numero-komunztadura ez dutela beti gauzatzen ere ikus dezakegu:

- (98) *mira las luces amarillo (Magín 26)*
ése es los coches grande (Alberto 28)

Halere, ikertzaile honek plurala beranduago eta eskasago agertzen dela dio, baina berak egokitasuna azpimarratzen du.

Bestalde, 26. taulan haur elebidun honek korpusean zehar darabiltzan determinatzaile singularrak eta pluralak ikus ditzakegu. Bertan lehen erabileraren data adierazi dut.

26. TAULA

DETERMINATZAILE SINGULARREN ETA PLURALEN ERABILERAREN DATAKETA

	singularra	plurala		singularra	plurala
el/los	1;10;13	2;07;01	mi,tu,su/-s	1;11;02	-
la/las	1;11;02	2;02;14			
un/unos	1;10;13	2;08;18	otro-a/-s	1;11;02	-
una/unas	2;00;00	-			
este-a/ -s	2;02;14	3;00;20	mucho/-s	2;00;22	2;06;11
ese-a/ -s	2;02;14	3;00;20	dos		2;08;29

Haur gaztelau elebkarren ekoizpenetan, haur elebidunarenean bezala, ondoko berezitasunak gertatzen direla iruditzen zait:

- Hasieran ez dutela pluralik erabiltzen.
- Numero-kategoria, pluralaren erabilera singularrarekin aurkakotasunean behintzat, genero-kategoriaren ostean garatzen dutela.
- Izen-sintagmaren barruan, lantzean behin bederen, numero-komunztadura akatsak ikus ditzakegula. Nolanahi ere, ez dut aurkitu haur gaztelau elebkarren datuetan pluralaren markaren erabilera-eza determinatzaileetan, alabaina, bai, beste osagai batzuetan.

Haur elebidunaren ekoizpenean azpimarragarria dena, beraz, 2;07ko grabaketa bietan egiten duen akats-kopurua eta akats-mota dira: % 50 baino handiagoa eta determinatzaileak pluralaren markaz ez janztea, alegia.

3.2.5. Genitiboaren agerrera.

Gaztelaniazko genitiboaren erabilera bi multzo nagusitan bereiz dezakegu. Batetik, dagoeneko aztertu ditugun edutezko determinatzaileak. Bestetik de preposizioaz buruturiko izen-lagunak.

Ondoko taulan (ikus 27. taula) forma guztien lehen agerrera datatu dut. Euskarazko formekin erkatuz, gaztelaniazko izen-lagunak beranduago darabiltzala ikus dezakegu, euskarazko lehen adibidea 2;05 adineko grabaketan aurkitu baitut. Edozelan ere, urriak dira egitura hauei buruzko datuak hizkuntza bietan haur elebidunaren korpusean.

27. TAULA
GAZTELANIAZKO GENITIBOEN LEHEN ERABILEREN DATAKETA

mi	1;11;02	de + (art) + izenkia	2;02;14
tu	2;04;11	art + de + (art) + iz.	2;06;11
su	2;07;28	art + iz. + de + art + iz.	2;07;28
nuestro	2;08;18		

Edutezko determinatzaileen deskribapena lehenago egin dudanez, jarraian izen-lagunen deskribapenari lotuko natzaio.

Euskaraz bezala, ikus ditzakegun lehen izen-lagunak izen-sintagmaren muina isildurik dutenak dira:

(99) *de Itsaso (M, 2;02)*

Genitiboren batez osaturiko izen-sintagma osoen ekoizpena beranduago ikus dezakegu:

(100) *la casa de Heidi (M, 2;07)*

Edozelan ere, badirudi adin honetan zailtasunak dituela halako egiturak burutzeko. Ondoko adibidean bere aitarekin ari da, eta hona hemen nola errepikatzen duen haur elebidun honek bere aitak gauzaturiko genitibodun izen-sintagma **de** preposizio barik eta artikulua barik:

(101) *Aitak: el aitita de Heidi*
Haurrak: aitita Heidi (M, 2;07)

Ez dut beste halako adibiderik bildu, eta beraz, zaila egiten da ekoizpen honen zergatia asmatzen. Baliteke egitura honen jabeakuntzaren hasieran egoitea, eta hasiera guztietan halako zailtasunak igarri ditugu. Beste hitz batzuekin esanik, aurreko egiturak, hots, genitibo gabeko egiturak, genitiboaren garapenaren hasieran oraindik erabiltzen jarraitzen duela.

Aguirrek (1995) bilduriko datuetan ere ikusten da jokabide hau haur erdaldun elebarrarengan. Hona hemen bi haurren adibide bina, lehenengoan **de** preposizioa darabilte, hurrengoan, beranduagokoa izan arren, ez dute preposizio hau gauzatzen:

(102) *ahora el papá de Javi (Ana 29)*
¿te acuerdas que en el cine había la pelo los perritos? (Ana 32)
e cepillo de papá (Magín 25)
no quiero la bolsa los señores (Magín 26).

Gure ikerketako haur elebidun hau, edozelan ere, adin honen inguruan gaztelaniazko genitiboaren berezitasunaz jabetu da, hurrengo taulan, 28.ean alegia, ikus daitekeen legez. Taula honetan egitura ezberdinak bereizi ditut: izen-lagun hutsa dutenak (de + artikulua + izenkia), izen-laguna mugatzaileen batez ekoizten dituenak (artikulua + de + artikulua + izenkia) eta, azkenik, genitiboa izen-sintagmaren barruan delarik gauzatzen dituenak (artikulua + izenkia + de + artikulua + izenkia).

28. TAULA
DE PREPOSIZIOAREN ERABILERA IZEN-LAGUNAK GAUZATZEAN HAUR ELEBIDU-
NARENGAN

	de + (art) + izenk.	art + de + (art) + iz.	art + iz. + de + art + iz.
2;02;14	1		
2;06;11		1	
2;07;28		1	1
2;08;18	1		
2;08;29	3	1	
3;00;20			1
3;01;04	2		1
3;02;07	1	2	1
3;02;14	4		7
3;03;01			2

Adibideak honako hauek dira:

(103) *de éste (M, 2;08) de Cesar (M, 2;08)*

(104) *el de Heidi (M, 2;07)*

(105) *la pintura del coche (M, 3;00) el cuento del vagabundo (M, 3;01)*

Gaztelaniazko genitiboaren hurrenkera beti ohizkoa da, hots, genitiboa izen-sintagmaren muinaren ezkerrean. Hau hurrenkera euskarazkoaren alderantzizkoa da, lehen azaldu dudan moduan. Horrela bada, arlo honetan ez du inolako interferentziarik erakusten.

3.2.6. Adjektiboaren agerrera.

Atal honetan izenen bati laguntzen dion adjektiboaren agerrera arakatu-ko dut. Adjektiboak lehenago ere ekoitzi ditu, hasiera-hasieratik, baina ez izen bati laguntzen.

Izenen bati laguntzen dioten adjektiboak beti izenaren eskuman ekoizten ditu, arauak ahalbideratzen duen legez.

Lehen adibidea goizetikoa da, bertan aita eta haurra ari dira:

(106) *aita: mira, vamos a hacer una torre alta alta de-, a ver, así, (x)*
haurra: tese nande
aita: así
haurra: (xx) nande tese
aita: ¿eh?
haurra: tteche nande
aita: ¿el coche?
haurra: sí
aita: ¿que quieres traer los coches?
haurra: sí (M, 1;10)

Hiru aldiz errepikatzen du haurrak *coche grande* ekoizpena, eta behin, bigarrenean alegia, ez dago hain argi hurrenkera itxarongarria denentz.

Hurrengo adibideak 9 hilabete geroagokoak dira, eta adjektiboa beti agertzen da izenaren eskuman:

(107) *el cristal roto (M, 2;07) el camión grande (M, 2;07)*
un monte grande (M, 2;11) una patada grande (M, 3;01)

3.2.7. *Gaztelaniazko korpusaren laburbilketa.*

Bilduriko datuek gaztelaniazko izen-sintagmaren oinarrizko egituraren erabilera baiesten dute. Egitura konplexuagoak beranduago garatuko dituela uste dut.

Hemen aurkezturiko garapenari buruz, laburbildurik, hurrengo proposamenak aurkeztuko ditut:

1. Haur elebidunaren ekoizpenean aldi aurremorfoloogikoa baiets daiteke. Aldi aurremorfoloogiko honetan haur honek, unitate lexikoez gain, aurreterminatzailea baino ez darabil. Gainera, aurreterminatzailea batzuetan baino ez darabil, hots, ez darabil horrela eskatzen duten ekoizpen guztietan. Ez dut aldi honetan bestelako berezitasun morfoloogikorik bilatu, hala nola, pluralarena, genitiboaren egitura, genitiboaren marka, eta abar.

Aurreterminatzailea da, beraz, aldi honetan morfoloogikotzat jo daitekeen ezaugarri bakarra.

2. Gaztelaniazko izen-sintagmaren jabekuntza mailakatua dela esan daiteke. Aldi aurremorfoloogikoaren ondoren, izen-sintagmaren egitura ez da bat-batean garatzen, apurka apurka baino, garabidea oso arina den arren.

Determinatzaileak, generoa, numeroa eta genitiboa mailakaturik aurkitzen ditugu haur elebidun honen ekoizpenean. Antzeko garabidea ikusi dugu haur gaztelau elebarraren ekoizpenetan.

3. Gaztelaniazko izen-sintagmaren egiturak ez dirudi euskarazkoaren interferentziarik duenik. Ez dut bildu, halaber, bateraketa deritzon fenomenoak baiets dezakeen daturik edo adibiderik. Edozein gramatika-kategoria erabiltzen hasten denean, gaztelaniazko berezitasunez eta hurrenkeraz burutzen du.

Aldi aurremorfoloogikoan agertzen den aurreterminatzailea bera ere, gaztelaniaz ohikoa denez, ezkerrean agertzen zaigu beti.

4. Gaztelania ikasten diharduten haur elebarrarekin erkatu ezkerko haur elebidun honen garabidea, antzerakotasuna da berezitasunik handiena. Haur gaztelauek dituzten arazo berak ezagutzen ditu. Horrela azal daiteke, esate baterako, genero kategoriarekin gertatzen dena erabileraren hasieran. Haur elebidunak zailtasun apur batzuk baditu, baina gauza bera gertatzen da haur gaztelau elebarraren garapenean ere.

5. Fenomeno berezien artean, numero kategoriaren jabekuntzan ikusi ditugun ezegokitasunak, hots, determinatzailea 2;07ko adineko grabaketa bietan izen pluralarekin % 50 aldiz ez komunztatzea, haur elebidunaren gaztelaniazko korpusetako daturik azpimarragarrienetarikoa iruditzen zait. Haur gaztelau elebarrak hasieran pluralari dagokion morfema ez dute ekoizten eta ondoren, batzuetan behintzat, ezegokitasunak gauzatzen dituzte, adibideetan ikusi dugun moduan. Haur elebarraren ekoizpeneko berezitasun azpimarragarriena kopuruen kantitatea da: % 50 baino gehiago, hain zuzen ere.

6. Genero-kategoriaz, euskaraz ez den arren, goiz jabetu da haur elebiduna, numero kategoriaz baino goizago, alegia. Gainera, generoaren inguruko ezegokitasunak txikiagoak direla esan daiteke. Hizkuntza batek ez duen kategoriaren bat, beraz, ez da oztopo bestean goiz eta egoki baitaratzeko.

7. Orohar, bada, ez dut hizkuntza-bateraketaren aldeko frogarik bildu. Elebidunak elebarraren antzerako garabidea gauzatzen du, hauek daukaten gaitasun berbera erakutsirik.

8. Bestalde, izen-sintagmaren jabeakuntza-garapena mailakatua dela esan dezaket, mailaketaren hasieran aldi aurremorfoloikoa dakusagularik.

Batetik, aldi aurremorfoloikoa dakusagu garapen morfoloikoa hasi baino lehen. Aldi aurremorfoloikoan haur gaztelauek aurreterminatzailea baino ez darabilte: **-a**, ikertzaile batzuen datuetan; **a**, **e**, **o**, **u**, beste ikertzaile batzuen datuetan.

Bestetik, garapen morfoloikoaren bidetik abiatzen direnean badirudi antzeko ibilbidea gauzatzen dutela haurrek: determinatzaile-ezaugarria, genero-ezaugarria, numero-ezaugarria, genitibo-ezaugarria, eta abar.

Hirugarrenez, genero eta numero-kategoria gauzatzean, hasieran behintzat, zailtasunak dituzte. Nolanahi ere, zailtasun hauek, ezin kategoriaren erabileraren hasieran ikusitakoen antzekoak direla esan daiteke.

Kategoria berriren batez jabetzen direnean, hasieran behintzat, ez dute kategoria ikasi berria % 100 aldiz gauzatzen, aldi batean aurreko aldiaren erabiliriko egiturak ere erabiltzen jarraitzen dutelako. Lehenago esan dudan moduan, akats edo ezegokitasun hauek garapen mailakatuari zor zaizkio.

4. ONDORIO-BILKETA ETA EZTABAIDAGAIK

Lehen atalean aurreraturiko hipotesiak datuetatik iragazi ondoren honako proposamenak bildu ditut:

1. Haur elebidunak, gramatika-ezaugarriak eta sintaxi-arauak erabiltzen hasten den unetik, ikasten diharduen gramatika-sistema biak bereizten ditu, izen-sintagmaren egiturari dagokionez behinik behin.

Euskarazko determinatzaileak helduon erizpideak bideraturik gauzatzen ditu, orohar, eskuman. Halere, ezkerreko egongunea eskatzen dutenean, galdetzaileak eta harridurazkoak esate baterako, ezkerrean gauzatzen ditu. Gaztelaniazkoak, ordea, ezkerrean gauzatzen ditu beti.

Genitiboaren marka eta hurrenkera ezberdinak dira hizkuntza bietan: euskaraz ezkerrean eta gaztelaniaz eskuman haur honen ekoizpenean. Gaztelaniazko edutezkoak (**mi**, **tú**, **su**,...), genitibotzat hartuak izan daitezkeenak, arauak eskatzen duen legez, ezkerrean ekoitzi ditu bilduriko adibide guztietan.

Izenei laguntzen dien adjektiboen egongunea egokia da hizkuntza bietan hasiera-hasieratik: eskuman, hain zuzen ere. Gaztelaniaz gerta daitezkeen ezkerreko egongunerik ez dut aurkitu.

Generoaren kategoria egoki bereganatu du gaztelaniaz, euskarak halako berezitasunik ez duen arren. Generoari dagokion izen-sintagmaren barruko komunztadura ere egokitasunez burutu du.

Numeroaren kategoriaz itxaroten nuen bezala jabetu da hizkuntza bietan. Gaztelaniazko izen-sintagmaren barruko numero-komunztadura ere ikasi duela esan daiteke, hasieran determinatzaileen pluraleko formak erabiltzean zenbait zailtasun dituen arren. Euskaraz, ordea, araua gorderik, ez du izen-sintagmaren barruan numero-komunztadurarik egin.

2. Haur elebidun honek jarraituriko garabidea haur elebakarrek jarraiturikoen antzekoa izan da. Horrela, bada, haur elebidunaren garapena, funtsez behintzat, haur elebakarren modukoa izan da.

Euskararen jabeakuntzaren garapenean haur elebidunak jarraituriko bilakabidea haur elebakarren buruturikoaren antzekoa izan da. Horrela, esate ba-

terako, determinatzaileen jabekuntza genitiboaren eta pluralaren aurrekoa izan da.

Azpimarragarria iruditzen zait erakusleen jabekuntza-garabidea haur euskaldun biengan. Entzuten eta ikasten duten hizkuntzakia dela eta, bizkaiera alegia, haur hauek garabide berezia gauzatzen dute erakusleen egonguneaz: hasieran batez ere izenaren ezkerrean, lantzean behin izenaren eskuman, eta 3;00ko adinera hurbiltzen diren neurrian erakuslea izenaren aurrean zein atzean errepikaturik, bizkaieraz entzun daitekeen legez.

Gaztelaniaren jabekuntzaren garapenean elebkarrek eta elebidunak antzeko bilakabidea jarraitu dute.

Arlo honetan interesgarriak dira generoaren eta numeroaren jabekuntza-garapenetan burutzen dituzten bilakabideak. Generoaren goizetiko erabilera-aren hasieran zenbait ezegokitasun ikus ditzakegu haur guztiengan. Edozelan ere, kategoria hau hiru urte egin baino askoz lehenago egoki menderatzen dutela ikusi dugu.

Numeroaren jabekuntza, aldiz, beluago gertatzen da haur guztiengan, elebakarrengan zein elebidunarengan. Kategoria honetan ere zailtasunak erakusten dituzte erabileraren hasieran, eta haur elebidunaren korpusean 2;07ko adina duenean egiten dituen komuntzaduraren arloko ezegokitasun kopurua eta maiztasuna izan dira arakatu dudana gaztelaniazko korpuseko daturik nabarmenenak. Elebkarrek ere erakusten dituzte numeroaren komuntzaduraren arloan ezegokitasunak, alabaina, haur elebidunaren ezegokitasunaren maiztasuna % 50 da 2;07ko grabaketa bietan. Beste grabaketetan, ostera, ezegokitasun kopuruak ez du % 10 gainditzen. Ikusi ditudan gaztelaniazko ikerketetan haur gaztelau elebkarrek ere badituzte numero-komuntzaduraren arloko ezegokitasunak kategoria honetaz baliatzen hasten direnean (ikus Hernández Pina, 1984, eta López Ornat, 1995). Ezegokitasunak ekoizteak ez ditu haur elebidun eta elebakarrak bereizten, beraz. Nolanahi ere, aipatzekoa da Aguirrek (1995) arakatu dituen haur gaztelau elebkarrek ezegokitasun oso gutxi omen dituztela, egileak berak dioenez. Halere, ikertzaile honek ez du daturik eskaintzen.

3. Haur elebidunak ikasten diharduen hizkuntza bietariko batek besteak ez duen kategoriaren bat izatea ez da zailtasuna haur elebkarrek ikasten duten garabidearen une berean eta antzerako bilakabidea jarraiturik ikasteko. Horrela ikusi ahal izan dut gaztelaniazko generoaren kategoriaren jabekuntza-garapenean eta euskarazko izen biko sintagma osatzean, esate baterako.

Izen-sintagmaren eraketa ezberdina gauzatu du haur elebidunak hizkuntza bietan numero-komuntzadurari dagokionez ere. Gaztelaniaz, euskaraz ez bezala, numero-komuntzaduraz baliatu da, hizkuntza biek duten antolaketa ezberdina bereizirik.

4. Gramatika-sistema biak desberdindurik menderatu ditu haur elebidunak. Bien arteko interferentziarik ez dut ikusi. Baliteke, nolahi ere, gaztelaniaren numeroaren jabekuntza-garapenean deskribaturiko zailtasunak arlo honetakoak izan daitezkeela defendatzea, euskaraz ez baitauka izen-sintagmaren barruko numero-komuntzadurarik.

Balizko interferentziaren aurka, nire ustez behinik behin, argudio bi daude. Batetik, haur elebidunak bereizi egin dituela sistema biak arlo honetan, gai baita izen-sintagmaren barruko numero-komuntzadura gaztelaniaz gauzatzeko eta euskaraz numeroa izen-sintagmaren eskuman baino ez markatze-

ko, hots, numero-komunztadurarik ez egiteko. Bereizketa hau, gainera, hasiera-hasieratik ikus dezakegu, ezegokitasunak ere egiten dituen arren.

Bestetik, haur gaztelau elebkarrek ere arlo honetako ezegokitasunak egiten dituztela, nahiz hauen ezegokitasun kopurua, dirudenez, ez den elebidunak 2;07ko adina duenean, baina soilik une honetan, ekoizten duenaren besteko handia.

Agian gaztelaniaren jabekuntza-garapena zehatzago eta datu gehiagorekin egin beharko litzateke, beste haur elebidun zein elebkarrengan, haur elebidun honek jarraitu duen garabidean izan duen oztopo honen arrazoiak zeintzuk izan diren jakiteko.

5. Izen-sintagmaren jabekuntza-garapena mailakatua da hizkuntza bietan. Hizkuntza bietan determinatzaileen erabilera agertzen den lehen ezauzgarria dela esan daiteke. Ondoren, generoaren jabekuntza -gaztelaniaz, noski-, genitiboaren jabekuntza eta numeroarena burutzen dituzte. Haur guztiek, gainera, antzeko ibilbidea erakusten digute, euskaldunek zein gaztelauak, elebkarrek zein elebidunak. Aguirrek (1995) gaztelaniazko ekoizpena arakatzean gauza bera dio.

Determinatzaileen artean ere mailaketa ikusi dugu, nabaria baita, esate baterako, zenbatzaileak eta galdetzaileak beluago erabiltzen dituztela. Numeroari dagokionez, singularreko formak dira goizetikoenak, ondoren pluralekoak eta, azkenik, euskarari dagokionez, mugagabeak. Euskarazko ekoizpenean, leku-genitiboa adierazten duen marka, **-ko** alegia, genitiboari dagokion marka, **-en** hain zuzen, baino beluago aurkitu dugu.

6. Garapen mailakatuaren ondorioz, sarritan, kategoria berriren batez jabetzean, aurreko aldi buruturiko kategoria berri hori gabeko egiturak erabiltzen segitzen dute haurrek. Horrela, genitiboa burutzeko marka erabiltzen hasten direnean, sarritan, aurreko aldi erabili dituzten genitiborik gabeko egiturak gauzatzen jarraitzen dituzte. Fenomeno hau haur elebkar zein elebidunengan, euskaldun zein gaztelauengan ikusi ahal izan dut.

Badirudi, beraz, hainbat zailtasun garapen mailakatuari dagozkionak direla eta ez dela zilegi akatsez edo errakuntzez hitzegitea. Fenomeno honen garrantzia handia dela iruditzen zait, honela uler baitaitezke haurren hizkuntzaren garapenean aurkitzen ditugun hainbat eta hainbat balizko akats eta, elebidunen ekoizpenean, interferentzia.

7. Zalantzarriagoa da, ostera, aldi aurremorfologikoaren izaera. Argi dago, haur guztiek, euskaraz zein gaztelaniaz, aldi batean, hitz biko egiturak erabiltzen hasten direnean hain zuzen, aurredeterminatzaile izenez bataiatu ditudan zalantzazko morfologia-elementuez gain ez dutela beste elementu morfologikorik ekoizten.

Aldi aurremorfologiko honetan, euskarazko izen eta adjektiboak **-a** markaz agertzen zaizkigu. Gaztelaniazko datuetan **a**, **e**, **o**, **u** forma ikusi ahal izan dugu izen eta adjektiboen ezkerrean. Alabaina, Capdevillak (1996) aztertu dituen haur katalanek **a** baino ez dute ekoizten eta Aguirrek (1995) arakaturiko haur gaztelauak **a** (berak determinatzailetzat hartu duena) eta **e** (**el** artikularen aldaeratzat jo duena).

Planteatzen zaidan itauna hauxe da: nik orain arte aurredeterminatzailetzat jo ditudan elementu horiek -euskarazko **-a** eta gaztelaniazko **a,e,o,u-** ez ote dira determinatzaileak? Ez ote darabilte haurrek morfologiarik, beraz?

Aurredeterminatzaileak elementu morfologikotzat ez hartzeko zenbait ar-

gudio bildu ditut. Batetik, euskarazko ekoizpenean -a elementuak ez dirudi morfologikoa denik. Haurrek helduek bezalaxe jokutzen dute, izen eta adjektibo arruntekin beti erabiltzen dituzte eta izenordainekin, izen bereziekin eta zenbait mailegaturekin, euren inguruko mintzaide helduek bezala, ez dute erabiltzen. Gainera, gehiegizko erabilera ere ikusi dugu aldi honetako osagai biko sintagmetan.

Gauza jakina da euskarazko -a artikulua ez dela inguruko hizkuntzetakoa bezalakoa. Mintzaide heldu euskaldunok ere, inguruko erdaldunekin erkatu ezkerok, askoz ere gehiago darabilgu artikulua hau. Gaztelaniaz hitzegitean, euskarazko maileguek, kultoak ez direnak behintzat, sarritan -a artikulua izaten dute. Gure hizkuntzari buruzko informazio lexikoa gaztelaniaz ematera-koan ere -a artikulua eransten diegu izenkiei.

Ildo honetatik, haurrek artikulua honekin egiten duten erabilera lexikoa dela pentsa daiteke, ez morfologikoa.

Bestetik, gauzak ez daude hain argi gaztelaniaz. Pentsa dezagun aurre-determinatzailearen jabe-kuntza lexikoa dela. Honen alde bi argudio: ez dutela aurre-determinatzailea beharko lukeen inguru guztietan erabiltzen eta aurre-determinatzailearen itxura ez datorrela guztiz bat determinatzaileekin. Gainera, guraso eta heldu gaztelauak sarritan eskaintzen diete haurrei unitate lexikoei buruzko informazioa artikulua eta guzti -kontutan izan *mira, un perro*, eta antzeko adibideak-.

Capdevillak (1996) beste arrazoi sendo bat ere eman du: haur katalanek aurre-determinatzailea -berak bokal neutroa deitzen duena- aditzen aurrean ere jartzen dutela. Nik ere jarri ditut halako adibideak Aguirreraren (1995) haur gaztelau elebarraren datuetatik aterata (ikus (70) adibidea).

Alabaina, Aguirrek (1995) aurre-determinatzaileak determinatzailetzat jotzen ditu zera esanez: haurrak izen-sintagmaren egituraz jabetu direla (berak determinatzaile-sintagma deritzo izen-sintagmari) eta, beraz, sintagma honetan determinatzailea gauzatzearen beharrak bultzaturik, determinatzailearen egongunean, unitate morfologikoren bat ekoizten dutela. Beharbada, arrazoi fonetikoak direla eta, ez dira gai determinatzaileak ekoizteko, eta antzeko unitate morfologiko errazagoa burutzen dute. Ildo honetatik, aurre-determinatzaileak elementu morfologikoak lirakeke, eta haurrak determinatzaile-sintagmaren egituraz eta egitura honen buruaren egonguneaz (determinatzaile-sintagmaren izaera defendatzen duen teoriak determinatzailea sintagma honen burua dela ere defendatzen du) jabetu dira hitz biko ekoizpenak egiten hasi direnean, edo agian goizago ere bai. Badago argumentu erantsia ere: determinatzaile-sintagmaren egituran, ikasten diharduten hizkuntzaren arabera, haurrak gai dira sintagma honen burua, determinatzailea, egongune ezberdinetan jartzeko, gaztelaniaz ezkerrean eta euskaraz eskuman. Nolabait, determinatzaile-sintagmaren parametroak eskaintzen dizkien aukera bietatik itxarongarria dena aukeratu dute hizkuntza bakoitzean.

Edozelan ere, aurre-determinatzaileen jabe-kuntza lexikoa dela ere pentsa daiteke: haurrek imitazioaren bidez ikasi dute. Hizkuntza bakoitzean entzuten duten egongunean jartzen dute eurek oraingoz determinatzailetzat hartzeko gai ez diren elementu hori. Ez dira determinatzaile-sintagmaren (edo izen-sintagmaren) egituraz jabetu, eta hiztegia ikasten baino ez dira ari. Eginbide honetan entzuten dutena unitate lexiko bezala ikasten dute, determinatzaile eta guzti.

Aldi aurremorfologiko aurredeterminatzaileen izaerari buruzko eztabaida luzatu egin daiteke eta hori arlo honetan gauzak argi ez daudelako da. Argibide bakarra datu eta araketa gehiago burutzea da. Bide honetatik haurren hizkuntzaren jabekuntza-garapenari buruzko datu gehiago eta zehatzagoak ere izango genituzke. Hala bedi.

BIBLIOGRAFÍA

- AGUIRRE, C. (1995), *La adquisición de las categorías gramaticales del español*. Tesis Doctoral: Universidad Autónoma de Madrid.
- BARREÑA, A. (1993), *Haur euskaldunen hizkuntzaren jabekuntza-garapena: INFL eta KONP funtzio-kategorien erabileraz*. Vtoria - Universidad del País Vasco: Tesis doctoral.
- BARREÑA, A. (1994), Deklinabidearen jabekuntza-garapena haur euskaldun elebatar baten-gan. *Euskera - Real Academia de la Lengua Vasca* 39-2, 505-537.
- BARREÑA, A. (1995), Haur euskaldunen hasierako hizkuntzaren zenbait berezitasun. *Fontes Linguae Vasconum* 68, 69-95.
- BARREÑA, A. (1995), *Gramatikaren jabekuntza-garapena eta haur euskaldunak*. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatearen Argitarapen Zerbitzua.
- BERGMAN, C. (1976), Interference vs. independent development in infant bilingualism. Keller G. D., Teschner R.V. & Vierra S. (eds.), *Bilingualism in the Bicentennial and Beyond*. New York: Bilingual Press, 86-96.
- BOWERMAN, M. (1973), *Early Syntactic Development: A Cross-linguistic Study with Special Reference to Finnish*. Cambridge: Cambridge University Press
- BROWN, R. (1976), *A first language. The early stages*. Penguin.
- CAPDEVILA, M. & SERRA, M. (1996), La adquisición de las categorías funcionales en niños catalanes. M. Pérez Pereira (ed.): *Estudios sobre la adquisición del castellano, catalán, eusquera y gallego*. Santiago de Compostela: Universidade de Santiago de Compostela, 241-248.
- DE HOUWER, A. (1987), *Two at a time: An Exploration of How Children Acquire Two Languages from Birth*. Ph. D. Dissertation: Free University of Brussels.
- DE HOUWER, A. (1991), *The Acquisition of Two Languages from Birth: a Case Study*. Cambridge: Cambridge University Press.
- HERNÁNDEZ PINA, F. (1984), *Teorías psicopsicolingüísticas y su aplicación al español como lengua materna*. Madrid: Siglo XXI
- IDIAZABAL, I. (1991), Izen Sintagamaren Determinante-artikula eta bere jabekuntza. Lehenengo emaitzak euskaraz eta erdaraz. I. Idiazabal editora: *Adquisición del lenguaje en niños bilingües y monolingües - Hizkuntz Jabekuntza Haur Elebidun eta Elebatarretan*. San Sebastián: Servicio Editorial de la U.P.V., 169-181.
- IDIAZABAL, I. (1995), First Stages in the Acquisition in the Spanish of the Basque Country. C. Silva-Corvalán editora: *Spanish In Four Continents. Studies in Language Contact and Bilingualism*. Washington: Georgetown University Press, 243-259
- LÓPEZ ORNAT, S. (1994), *La adquisición de la lengua española*. Madrid: Siglo XXI.
- LÓPEZ ORNAT, S. (1995), Mecanismos de adquisición morfosintáctica. *I Encuentro Internacional sobre Adquisición de las Lenguas del Estado*: Santiago de Compostela
- MEISEL, J. (1989), Early Differentiation of languages in bilingual children. K. Hyltenstan & L. Obler editores, *Bilingualism across the Lifespan: Aspects of Acquisition, Maturity and Loss*. Cambridge: Cambridge U. P., 13-40.
- MEISEL, J. & MAHLAU, A. (1987), La adquisición simultánea de dos primeras lenguas. Discusión general e implicaciones para el estudio del bilingüismo en Euskadi. *II Congreso Mundial Vasco*: San Sebastián. *Iberoamericana* 2/3 (34/35), 1988, Frankfurt, 5-34.
- PADILLA, A. M. & LIEBMAN, S. (1975), Language acquisition in the bilingual child. *Bilingual Review* 2, 34-55.
- PADILLA, A. M. & LINDHOLM, K. (1978), Language mixing in bilingual children. *Journal of Child Language* 5, 327-335.
- SLOBIN, D. (1985) (editor), *The Cross-linguistic Study of Language Acquisition. Volume I: The Data. Volume II: Theoretical Issues*. Hillsdale, N. J.: Erlbaum

- TAESCHNER, T. (1983), *The Sun is Feminine: A Study of Language Acquisition in Bilingual Children*. Berlin: Springer-Verlag.
- VILA, I. & CORTÉS, M. (1991), Aspectos relativos al desarrollo lexical y morfosintáctico de los bilingües familiares. I. Idiazabal editora: *Adquisición del lenguaje en niños bilingües y monolingües - Hizkuntz Jabekuntza Haur Elebidun eta Elebakarretan*. San Sebastián: Servicio Editorial de la U.P.V., 109-127
- VOLTERRA, V. & TAESCHNER, T. (1978), The acquisition of language by bilingual children. *Journal of Child Language* 5, 2, 311-326. La adquisición y el desarrollo del lenguaje en niños bilingües. *Infancia y Aprendizaje* 21, 1983, 23-26.

LABURPENA

Ikerlan honen helburua euskara eta gaztelania ikasten diharduen haur elebidun batek izen-sintagmaren egituraz jabetzeko jarraitzen duen garapena arakatzea da. Gogoan izanik euskararen eta gaztelaniaren izen-sintagmen egiturak arras ezberdinak direla, haur elebidunen jabekuntza-garapenean gerta litezkeen gramatika-kodeen bereizketa eta bateraketa-fenomeno eztabaidatuak aztertzea nahi ditut.

Hipotesia gramatika-sistemen goizetiko bereizketa da, hots, haurrak ezaugarri morfologikoak eta sintaktikoak erabiltzen hasten diren unetik kodeen bereizketa ere egiten dutela. Hipotesi hau baiesteko asmoz euskara eta gaztelania ikasten diharduen haur elebidun batek 18 hilabete dituenetik 42 hilabete dituen arteko ekoizpen bidegrabatua arakatuko dut. Datuok eta jabekuntza-garapena haur euskaldun eta gaztelaniadun elebakarrek ekoitziriko datuekin eta jabekuntza-garapenekin erkatuko ditut.

RESUMEN

El propósito de la presente investigación es analizar el proceso de adquisición del Sintagma Nominal por parte de los niños bilingües vasco-españoles. Dado que en euskara y español la estructura del Sintagma Nominal difiere claramente, se pretende observar el controvertido fenómeno de la separación o fusión de los códigos gramaticales en el proceso de adquisición de los niños bilingües.

Se parte de la hipótesis de diferenciación de sistemas gramaticales tempranos y de separación de códigos una vez que los niños comienzan a utilizar elementos morfológicos y sintácticos. Para ello se analiza el corpus videograbado de un niño bilingüe vasco-español desde 1;06 hasta 3;06 y se compara el desarrollo del Sintagma Nominal con el desarrollo observado del mismo en procesos de adquisición monolingües, tanto vascos como españoles.

RÉSUMÉ

L'Intention de ces recherches est d'analyser le processus d'acquisition du Syntagme Nominal par des enfants bilingues basque-espagnols. Etant donné qu'en euskara et en espagnol la structure du Syntagme Nominal diffère clairement, on a prétendu observer le phénomène contesté de la séparation ou fusion des codes grammaticaux dans le processus d'acquisition des enfants bilingues.

On est parti d'une hypothèse de différenciation des systèmes grammaticaux précoces et de la séparation des codes, une fois que les enfants ont commencé à utiliser des éléments morphologiques et syntaxiques. Pour cela, on analyse le corpus enregistré sur vidéo d'un enfant bilingue basque-espagnol, depuis l'âge de 18 mois jusqu'à l'âge de 42 mois, et on compare le développement du Syntagme Nominal avec le même développement observé dans les processus d'acquisition mono-linguistiques, autant en langue basque qu'en langue espagnole.

ABSTRACT

The purpose of this research is to analyse the process of the acquisition of the Nominal Syntagma by Basque-Spanish bilingual children. Given that the structure of the nominal syntagma in Basque and Spanish is clearly different, the aim of the author is to observe the controversial phenomenon of the separation or fusion of the grammatical codes in the acquisition process of bilingual children.

The starting point is the hypothesis of the differentiation of the two grammatical systems early on, and the separation of the codes once children begin to use morphological and syntactic elements. To do this, the video-recorded corpus of a Basque-Spanish bilingual child is analysed from 18 months to 42 months old, and the development of the nominal syntagma is compared with the development of the same observed in monolingual acquisition processes, both in Basque and in Spanish.